



ARGIA

AMY GOODMAN
KAZETARI DESEROSOA
AEB-ETAKO BOTEREARENTZAT

IRANTZU VARELA: "BESTEEN GUSTUKO IZATEA DA PATRIARKATUAREN AGINDU NAGUSIA ORAIN"

GASTEIZ, 1936: ALTXAMENDU MILITARRARI AURRE EGIN ZIOTEN LANGILEEK

GIPUZKOA ZUTIK: HERRIZ HERRI ZABALTZEN DOA MUGIMENDUA




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

✓ ARGIA
etxean gero nahi dut

Urte osoko harpidetza

ARGIA

ARGIA astero, hilean 12€ baino ez
ARGIA hamabostero, hilean 6,5€ baino gutxiago
ARGIA hilero, hilean 3,5€ baino gutxiago

Nafaria: _____
Abizena: _____
Kontakoa: _____
Eztaba: _____



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Asier Blas
- 20 Jose Ignazio Ansorena
- 21 Iñaki Odriozola
- Oihana Etxebarrieta



Irantzu Varela: "Emakumeok geure desirrei erreparatzan hasten garen egunean, akabo patriarkatua" (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
NAÏMA HAMROUNI
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DEMOCRACY NOW!

SAKONEAN

- 14 | Irantzu Varela, Faktoria Lilaren sortzaileetako batekin solasean / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | 1936ko golpistei erantzuna: Greba orokorra Gasteizen / Urko Apaolaza Avila
- 28 | Amy Goodman: "Boterearentzat baino, botereaz ariko diren hedabideak behar ditugu" / Jabi Zabala
- 32 | Sulem Estrada: "Irakasleak beti izan dira indar sozial garrantzitsua Mexikon" / Dornaku Lanz Solbes
- 34 | Herriz herri zabalduz doa Gipuzkoa Zutik / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 36 | Barrónego urtegia: Egungo beharretara egokitu gabeko azpiegitura / Iker Oñate Aiastui
- 38 | Udal legea: Udalerrri euskaldunek badute aterpea / Onintza Irureta Azkune
- 44 | Xabier Queiruga (Pasazaite): Editore ezohikoa / Mikel Asurmendi

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Aier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Irtenbiderik gabe

Oso kritikakua izan da Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioa. Horren ostean, Grezian milaka lagun ez aurrera, ez atzera harrapatuta daude. Horietako bat da 25 urteko Abdullah Alkem siriarra. Palmiratik ihes egin zuen 2015ean Mahmood anaiarekin batera. Egun, Chios irlako Souda kanpamentuan konfinatuta dago beste 1.100 lagunekin batera. Horietako hainbatekin, 22 egunez gose greban izan zen bizibaldintzak hobetzeko asmoz. Iheslariz betetako ontziak iristen jarraitzen badute ere, errefuxiatu estatusa jasotzen duten apurrek bakarrik lortzen dute irlatik ateratzea.

Argazkia: David Juliá






“Ras yr iaith” galeseraren aldeko Korrika egin dute uztailaren 6tik 8ra. Bigarren edizio honetan, 25 herri zeharkatu dituzte.

argia.eus/multimedia



Logika patriarkala eta emakume kurduak

Michelle Allison militante kurduak iraultzako emakumeen paperaz eta mugimendu feministaren erronkez hitz egin zuen Gasteizen.



Mugak ireki

Zarauzko San Pelaio auzoko festen txupinazoan egindako kritika irudimentsua muge inguruko politikari eta Europar Batasunari.



Nobel saridunek transgenikoen harira egindako salaketari erantzun dio Greenpeacek

Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

109 Nobel saridunek Greenpeaceari transgenikoen aurka ez egiteko eskatu zioten uztailaren 1ean argitaratutako gutun irekian, baita urre koloreko arrozaren kontrako jarrera baztertzeko ere. Haien esanetan, elikagai horrek Afrika eta Asia hego-ekialdean A bitaminaren defizita duten pertsoneri lagundu diezaieke, kasu batzuetan heriotza saihestuz.

Mundu osoan ekoizten den elikagaien %30 zaborretara joaten dela eta horrekin munduan bizi garen guztiok elikatzeko adina janari dagoela adierazi du Greenpeacek; transgenikoek ez dutela gosearekin amaituko, hori baino

konplexuagoa baita egoera. Gaineratu du merkaturatzen diren labore transgenikoen %80 animalientzako pentsuetara eta bioerregaietara bideratzen direla.

Nazio Batuen Erakundeak egindako laborantza eta garapenaren inguruko azken ikerketaren ondorioekin bat egin du Greenpeacek, eta adierazi du nekazaritza ekologikoak pobrezia arintzen duela. Transgenikoek, bestalde, ondorio kaltegarriak dituztela sozialki eta ingurumenean.

Urre koloreko arrozaren inguruan, erakunde ekologistak adierazi du hogeit urteko ikerketaren ostean genetikoki aldatutako arroz mota hori oraindik ez dagoela merkaturatzeko moduan.

“Irakeko gerraz geroztik mundua hobeto dago eta ziurragoa da”

TONY BLAIR, ERRESUMA BATUKO LEHEN MINISTRO OHIA

2003an Irak inbaditzeko erabakiaz *Chilcot* txostena argitaratu dute Londresko ikerketa ofizialek: besteak beste, Tony Blairri leporatu diote justifikatu gabeko frogak aurkeztea eta George Bushi “babes mugagabea” eskaintzea. “Inoiz imajinatu ahalko duzuen baina pena, damu eta barkamen handiagoak adierazi nahi ditut”, esan du Blairrek. Baina zehaztapena ere gehitu du: “Erabaki zuzena hartu genuela uste dut. Mundua hobeto dago eta ziurragoa da”. **2016-07-06**





MOZAL LEGEA

BATEZ BESTE 61 ZIGOR ASTEAN

ETA ERTZAINZA

2015, APIRILA

2016, MARTXOA

3.959

ALDIZ

APLIKATU DU LEGEA EAEn

2015ean
2.719



1.240
2016an

ISUNAK, HERRIALDEKA

Bizkaian
1.907



Araban
1.613

Gipuzkoan 439

ISUNEN LARRITASUNA



986

(100 - 600 €)

2.973

(601 - 30.000 €)

LEGEAREN
ARTIKULUA

36.16

ZER ZIGORTZEN DUEN

Legez kanpoko drogen
salerosketa eta kontsumoa

37.04

Segurtasun indarrei "irain egitea
edo errespetu faltaz" zuzentzea

36.06

Poliziarri desobedientzia,
identifikatzeari uko egitea...

36.10

Arma debekatuak eramatea,
erakustea edo erabiltzea

36.03

Eremu publikoa oztopatzea,
desordena sortzea

37.13

Hiri-altzariak edo
ondasun publikoa kaltetzea

37.07

Besteren eraikin, etxebizitza edo
egoitzak okupatzea

36.04

Edozein funtzionario publikoren
jarduna oztopatzea

37.01

Elkarretaratzeak kalean edo
toki publikoetan

ERTZAINZAK EZARRITAKO ISUN NAGUSIAK

1.555

672

476

410

392

94

79

47

32



Espainiako poliziek 735 isun ezarri dituzte EAEn
(2015, uztaila - 2016, otsaila)

Udaltzainen isunak datu hauetatik kanpo daude

Nafarroako Gobernuak ez du oraingoz daturik eman

INFOGRAFIA: Garbine Ubeda Goikoetxea. • ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Barne Saila, Espainiako Barne Ministerioa.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Urdulizko ospitaleak protesta artean ireki ditu ateak

Unai Brea

@unaibrea

Uztailaren 7an hasi ziren gaixoak artatzen Osakidetzak Urdulizen (Bizkaia) ireki duen Alfredo Espinosa ospitale berrian. Erietzeak progresiboki jarriko ditu martxan arlo guztiak, eta 2017ra arte ez ditu zerbitzu guztiak eskainiko. Uribe Kosta eta Uribe Butroe eskualdeetako 175.000 biztanleri emango die arreta, Gurutzetako ospitalearen zama arinduz.

Zentro berriaren kudeaketak kritika ugari eragin du 2010ean eraikitzen hasi zenetik. Hasiera batean Eusko Jaurlaritzak –arteana Patxi López lehendakari zela– iragarri zuen 2013an zabalduko zituztela ospitale berriko ateak, baina irekiera-eguna atzeratuz joan da.

Osakidetzan ordezkariak duten sindikatuek hainbat mobilizazio egin dute ospitalea erabat publikoa izan dadin: “Zerbitzu guztiak Osakidetzako langileek eman behar dituzte, besteak beste sukaldia, garbiketa eta mantenua”, esan zuen LABek uztailaren 1ean, ospitalearen aurrean egindako mobilizazioaren karietara. Egun horretan ospitalearen inaugurazio ekitaldira joandako Iñigo Urkullu lehendakariaren eta Jon Darpon Osasun sailburuaren aurrean bildu

ziren sindikatueta kideak, “Urduliz %100 publiko” bat eskatzeko. Alfredo Espinosaren bigarren “bataioa” izan zen: 2012ko azaroan Patxi Lópezek ere inauguratu zuen.

“Pribatizazioak gailentzen dakar”

“Urtero, Osakidetzak 330 milioi euro gastatzen ditu berezkoak dituen zerbitzuak pribatizatuz; eta garbiketari dago-kionez, hala erabakitzen da edozein pribatizazioak gailentzen dakarrela jakin arren”, dio ELA sindikatuak. Haren iritziz, Urdulizko garbiketa zerbitzua pribatizatzearen ondorioa urtero 100.000 euro gehiago xahutzea litzateke.

“Osakidetzan garbiketa-zerbitzu gehien esleitura daukan enpresa, Garbaldi, Euzkadi Buru Batzarrekoa izandako pertsona batek zuzentzen duela azpimarratu behar da”, salatu izan du ELAk. Josu Olazararen Sagarduy da pertsona hori.

Sindikatuak uste dute Osakidetzak ez duela behar bezala argitu nola kudeatuko diren Urdulizko ospitaleen nahitaezkoak izango diren zenbait zerbitzu. “Bai Osakidetzak berak bai Eusko Jaurlaritzak pribatizazio gehiago egitea galarazten duten akordioak dituzte indarrean, baina Osakidetzak horien gainetik jokatu nahi du”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gure pentsioak, borrokarako jomuga



Juan Mari Arregi

Hego Euskal Herriko pentsiodunak eta Espainiako Estatukoak larrituta daude pentsioen elzteitsuen likidatze etengabearen aurrean. Espainiako Lan Ministeritzak Erreserba Funtseko 8.700 milioi euro erabili zuen uztailako pentsioak ordaintzeko. Operazio horren ondoren opa-roaldian aurreztutakotik 25.176 milioi euro baino ez dira geratzen. Erritmo horretan, elzteitsua 2017 amaieran hutsik egongo da. 2011n 67.000 milioi euro zeuden bertan. Zer gertatu da egoera horretara iristeko?

Bost milioi lagun daude langabezian Espainian eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenak –horiekin ordaintzen dira pentsioak– egunetik egunera gutxiago dira. Ez soilik gutxiago, enplegu prekario eta behin-behinekoen ondorioz soldadak murriztu direnez, kotizatzen dutenek kopuru txikiagoan egiten dute. PPren Gobernua kotizazio tarifa finkoa sustatzen ari da kontratazioa suspertzeko, eta horrela, Gizarte Segurantzarako diru-sarrerak ez dira nahiko.

Egoera horren aurrean eta pentsioak bermatzen segi nahi badugu, prekaritatea errotik desagerrarazi behar dugu eta enplegu duinaren eta egonkorren alde egin, egungoak baino soldata txukunagoak behar ditugu. Horrez gain, hobeto kudeatu behar da hau guztia. Hego Euskal Herrian, estatutu eta hitzarmenen bidez teorikoki badugu Gizarte Segurantzarako eskuduntzarik. Baina Madrilek konpromiso hori urratzen du eta ez digu uzten esku hartzen. Hortxe beste arrazoi bat nazio subiranotasuna aldarrikatzeko, Gizarte Segurantzaren propioarekin gure pentsioak bermatuko baditugu. Jakina, hemen ere egin ditzakegu gauzak gaizki. Baina kontrol politiko, sindikal eta soziala askoz handiagoa eta hobea litzateke. Borroka egiteko jomuga izan daiteke.



JONATHAN BACHMAN

Geldirik, biolentzia poliziala agerian uzteko

AEB. Zirkinik ere egin gabe, poliziaren aurrean geldi ageri da irudian Leisha Evans. AEBetako poliziaren biolentzia salatzeke egiten ari diren protesten sinbolo bilakatu da Reuters agentziako Jonathan Bachmanen argazkia. Egun bat giltzapean eman ostean askatu dute Evans. Poliziak hildako Alan Sterling eta Philando Castillaren heriotzak salatzeke hartu zuen protestan parte hartzeke erabakia. Bere esanetan, “nire haurrarentzat etorkizun hobea lortzeko beharrak” bultzatu zuen New Yorketik Louisianako manifestaziora joatera.

Mediku euskaldunen ordezkari, erdaldunak

Argia

@argia

Azpeitia, Aulesti, Errezil eta Segurako udalek, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Azpeitiko Natul Euskara Taldeak oharra kaleratu dute esanez Osakidetzak “berriro” ordezkariak egiteko euskararik ez dakiten medikuak kontratatatu dituela, eta ondorioz “herri hauetako biztanle guztioi zuzenean eragin digun erabakia” hartu duela.

Ordezkapenak

Azpeitian bi familia-mediku eta pediatra bat ordezkatu dituzte euskaraz ez dakiten medikuekin. Urrestillan eta Errezilen ere badabilta medikuok. Aulestin eta Seguran gauza bera gertatu da.

Arnasguneak

Oharraren sinatzaileen esanetan, Osakidetzak ez du kontuan hartzen herri horietako errealitate soziolinguistikoa, eta gogorarazi dute euskararen “arnasguneak” direla.

Kalitatea

Nabarmendu dute osasungintzan kalitatea hizkuntzari erabat loturik dagoela, “pazienten eta profesionalen arteko harremanean konfiantza eta enpatia lortzeko hizkuntza ezinbestekoa baita”.

ARRANTZA



%90

FAOren arabera, arrantzaguneen %90 agortuta edo gehiegi ustiatuta dago, eta 2025era bitartean produkzioa %17 handitzea aurreikusten da. Jasangarritasunaren muga gertu dugu.

x3

Arrantzaren gehiegizko ustiapena hirukoitzu egin da 70eko hamarkadatik hona.



GENERO NEUTROA

Justin Trudeau Kanadako lehen ministroak adierazi du genero neutroa nortasun agirikoa beste aukera bat izan dadin lanean ari dela Gobernuak. Kanadako Ontario probintziak jada adierazi du gida baimenetan X generoa ezartzeko lanetan dabilela.



BERRISKURATUTAKO ELIKAGAIAK

Elikagaiak zaborretik berriskuratuta lan egiten duen Europako lehenengo jatetxea eta bakarra da Freegan Pony. Bederatzi hilabeteren ostean, Parisko Udalarekin akordio batera iritsi dira bertako langileak eta lanean jarraitu ahaliko dute.



LAN ERREFORMA, AURRERA

Eztabaidarik eta botoa emateko aukerarik ez da izan Frantziako Asanblea Nazionalean. Manuel Valls Frantziako lehen ministroak Lan Erreforma dekretu bidez onartu du. Lau hilabete dira erreformaren aurkako protestak hasi zirela.

Borrokatu iceberg matxistaren oinarriak



Xabier Letona

@xletona

IRUÑEAN HILAREN 7AN sexu erasoen aurka Udaletxe Plazan izandako bilkura erraldoia deigarria izan zen. Lorpen handitzat hartu zen eta pozgarria ere izan zen milaka pertsonak erantzun tinto hori ematea egun horretako goizaldean izandako bortxaketari. Ematen du familia eta lagunaren artean sexu erasoez gehiago jarduteko aukera. Zer den eraso, ezetzaren garrantziaz, emakumezkoen egin beharrekoak, gizonen arduraz... berriketaldi arras interesgarriak sortzen dira gertakari hauen bultzatzen, hezkuntza eta hausnarketari begira behinik behin, horiek gabe lokatzeazko erraldoi handiak besterik ez baitira bilkura hauek.

Adi ibili beharreko tresnak ere badira halakoak, horrekin nahikoa dela pentsa baitezakete gizarteak eta bertaratutako herritarrek. Instituzionalizazioen arriskuak dira eta mugimendu feministaren eginkizuna izango da hauen norabidea analgesiko baino piperrauts bilakatzea. Azken finean, eta gehiegi azpimarratzen ez bada ere, bilkura hauen eraketan giltzarri izan da mugimendu feministaren presioa.

Hilketa eta bortxaketa dira gizartearen arbuiorik sendoena sortzen duten sexu erasoak, gazteluaren dorre goren eta ikusgarrienak, baina azpian haiei eusten dien guztia dago: oraindik orain emakumezko eta gizonen artean desberdintasuna sortzen duen gizarte matxista. Mespretxua, begirune eza, ukituak, festetako "dena libre da eta alkoholarekin are eta gehiago", janzkera eta jarrera 'dese-gokiak', begirada eta komentario zikinak, eraso txikien aurrean indiferentzia eta salaketa eza, kontrola... horiek guztiak dira sexu erasoaren arkitekturaren oinarriak.

Orain arte bezala, emakumezkoa eta bereziki mugimendu feminista izango dira egitura horiek guztiak txikitu arte-



EKINKLIK

ko borrokaren subjektu nagusiak. Gizonen ez dagokigu bakarrik borroka hori laguntzea, geure rol propioa ere izan beharko genuke garatu beharreko hausnarketan eta jokabidean, gizonen baita zapalkuntza eta desberdintasun horien guztien subjektu nagusia.

Pentsatzen dena baino latzagoak dira halako jarrerak egunerokotasunean. José David Yllanesek 2008ko Iruñeko sanferminetan hil zuen Nagore Laffage. Yllanesen epaiketan herri epaimahaiak hiru galdera pasatu zizkion epaileari Asun Casasola Laffageren amari galdetuzieziaion. Lehenengo biak ez zizkion egin epaileak, begirunezkoak iruditzen ez zitzaizkiolako. Hirugarrena honakoa zen: "Zure alaba oso *ligoia* al zen?"

Ardotan blai, titiak ukitzen dizkieten nesken irudiak ere ohikoak bihurtu dira sanferminetan. Epaimahai horrek ea oso topless zalea den galdetuko zukeen seguruenik, baina Iruñeko kaleetan oraindik ere eztabaidatzen da errua norena den, edo kasurik onenean, ea neskak erruaren zein parte duen.

Hedabideetako erredakzioetara ere egin dute jausi toplessen eta ukituen argazkiek, eztabaida sortuz. Eztabaidarik ez da, edo gutxiago, albisteak ukitu-eraso horien inguruan oinarritzen denean; al-diz, sare sozialetan eskandalua sortu du halako argazki bat erabiltzea uztailaren 7ko goizaldean bost gizonen egindako bortxaketaren albisteak ilustratzeko.

Zer ikusirik dute bi gertakizunek elkarrekin ateratzeko? Edo iradokitzen ari da akaso sexu giro horretan gertatzen direla bortxaketak? Edo are larriagoa dena, toplessa egiten duenak bortxaketa arriskua duela?

Ongi-etorri bilkura handiei, lorpena dira, batez ere egunerokoa ahalduztzeko balio badute: festa giroa, etxeko lanak, anai-arreben desberdintasunak, telebista, lan mundua, gizonen protagonismoa, gobernuaren osaketa, boterea... Horietan elikatzen baita gizarte matxista, sexu erasoaren oinarri eta ongari sendoena. "Gora borroka feminista", hori izan zen Iruñeko bilkurako oihu indartsuenetakoa ■

Duela 30 urte,
bozkatu genuen
NATOa ez sartzea...

espainiarengandik
BEREXIT
egiteko
aukera hutsegina

orduko kronika: Falzes 1986.3.13

OK



LuxLeaks-ek utzi ditu gaizkileak agintzen eta salatzaileak zigortuta



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Urtebeteko espetxe zigorra gehi 1.500 euroko isuna, Luxenburgoko agintariek mundu osoko oligarkiari zergen iruzurra nola antolatzen zien erakusteagatik. *LuxLeaks* epaiaren irakasgaiak dio hori dela delitu ekonomikoak salatzaera ausartzen direnen saria. Pozik egon behar, gainera, fiskalaren 10 urteko espetxe eskaria saihestu dutelako herritar eta erakunde askoren mobilizazio handiari esker.

Antoine Deltour, PricewaterhouseCoopers (PwC) auditoria multinazionalako enplegatua *LuxLeaks* eskandaluko informazioa kaleratu zuena, urte beteko espetxez zigortu dute Luxenburgoko sekretu profesionalen legea urratu eta data baseak legez kontratu eskuratzeagatik, lapurretatagatik finean. Raphaël Halet ere errudun jo dute epaiketan, hamar hilabete berarentzako. Edouard Perrin kazetaria libre geratu da. Aldiz, haiek salatutako iruzurgileak (Amazon, Ikea, Fiat, Pepsi, Apple...) oraindik inork ez ditu auzitara eraman.

Oxfamek esan du: "Zergak ordaintzetik ihes egiten dutenak indarturik atera dira epaiketa honetatik, legea beren alde jarri baita. Hemendik aurrera pertsona izugarri adoretua izan behar da zerga iruzurraz hitz egiteko, isun handiei edo espetxera joateko posibilitateari egin beharko baitie aurre". Garai zailak alerta jotzaileentzako, ingelesez *whistleblower*, gaztelaniaz *alertador* eta frantsesez *lanceur d'alerte* deituentzat.

Luxembourg Leaks edo *LuxLeaks* izena eman zaio Luxenburgoko ogasun publikoak auditoria konpainien bidez Europa osoko bezeroei zergak saihesteko eskainitako akordioen eskandaluari. 2014ko azaro eta abenduan ICIJ Ikerketako Kazetarien Nazioarteko Kontsortzioak plazaratu zituen *LuxLeaks* dokumentuak, bi alditan. 28.000 orrialde biltzen zituztenak PwC auditoriako multinazionalak 343 enpresaren enkarguz Luxenburgoko agintariekin bideratutako 548 itun

fiskal. Filtrazioak erakusten zuen Luxenburgok iruzurra antolatuta zeukala eskala industrialean.

1990etik hasita Luxenburgok berezitu da finantzen industrian, atzerriko konpainia handien filialak erakarritik, paradisu fiskalen mekanika klasikoak erabilita. Luxenburgoko funtzionarioek horiei zedula berezi bidez (*ATA Advanced Tax Agreement* ingelesez) bermatu diete ez pagatzea zergatan etekinen %29 baizik eta %1 edo gutxiago.

Luxenburgoko ogasunaren eta filial sarek babestutako korporazioen erdian, PwC bezalako auditoriako multinazionalak. Euskal Herrian ere ezagunak dira, konpainia handien eta administrazio publikoen arteko bitartekaritzan. PwC berak esku hartu du, esaterako, Gipuzkoan Zubietako erraustegia finantzatzeko operazioan, *swap* toxikoen auzian; auzitara eramanik, epaileek Gipuzkoan ere irabazle utzi zuten PwC.

LuxLeaks sek erdiz erdi harrapatu zuen Jean-Claude Juncker, Europako Batzordearen lehendakari izan aurretik Luxenburgoko lehen ministroa izana 1995etik 2013 bitartean. Eskandalua piztean deklaratu zuen sekula ez zuela eskurik sartu dossier bakar batean, Gobernuaren eta konpainien arteko akordioak nazioarteko zuzenbidea errespetatzen zutela, nahiz eta justizia fiskala eta arau etiko eta moralak urratu.

Hala ere, inork ez dio eragotzi lorik Junckerri; zergatan irabazien %29aren ordezkari %1a ordaintzea lortu zuten kon-

painiek lasai ederrean segitu dute beren negozioetan, PwC bezala; eta justiziarekin buruhausteak izan dituzte iruzurra haizatu zutenek.

Zerga ihesaren industria

Antoine Deltour Nancyn (Frantzia) aurkitu du *Rue89* aldizkariak, epaiketa baino lehentxeago. Emaztea eta bederatzi urteko alabarekin bizi da. "Zigortzen baldin banaute, helegitea ezarriko dut, ez niregatik baina alerta jotzaileen alde".

PwCn gazterik hasi zen, Bordeleko merkataritza eskola amaituta. 2008ko krisiarekin jabetu omen zen Luxenburgok darabilen fiskalitate-saihestearen garrantziaz. Aldatu nahian, INSEE Estatistiken eta Ekonomia Ikerketen Frantziako Institutuan postua eskuratu lehiaketaz eta PwC agur esan, bizi berri bati ekiteko. Ez ordea aurretik PwCko zenbait dokumentu bero hartu gabe.

Bere eskuetatik pasatako 350 ATA kopiari zituen: "Edonor izan daiteke alerta jotzaile. Nik ez dut egin agiriari kopiari eta kazetari bati ematea besterik. Gero gertakizunak buru gainera heldu zaizkit, bai, baina aurretik ez nuen horrelakorik pentsatu".

Cash Investigation telebista saioko Edouard Perrin kazetariak zabaldu zituen lehenbizikoz. Oihartzun handiegirik ez zuen lortu, baina nahikoa PwC barne ikerketa hasi eta Deltour atxilotu arazteko. Komisaldegi "oso bakarrik sentitu nintzen, galdu samar" aitortu du. Nazioarteko auzi penaletan bere-





Vincent Kesslerren argazki handian, Antoine Deltour polizia inguraturik Luxenburgoko auzitegira iristen, alboan daramala abokatua. Bidegabekeriak salatzen dituzten alerta jotzaileen auziperatze eta zigorrak deitoratu dituzte hainbat erakundek mundu osoan, tartean Nazio Batuen Erakundean giza eskubideen ardura daukan Alfred de Zayasek. Argazki txikian, Europako Batzordeko lehendakari Jean Claude Juncker, Europako paradisu fiskal nagusietako bat den Luxenburgon lehen ministro izana 1995-2013an.

zitua den William Bourden abokatuak gomendatu zion jada anonimotasuna mantendu ezingo zuenez, onena publikoki aurpegi ematea izango zuela. Argitara azaltzearekin afera elur bola bezala gizendu zen hedabideetan.

Milaka gutun, dozenaka elkarrizketa eskari... Hasieran pertsonalki erantzuten zuen, gero sostengu talde batek hartu zuen lana. Denen beharra izan du auzi egunak iritsitakoan. Epaiketaren gastuak ere batzordeak hartu ditu bere gain. Frantziako finantza ministro Michel Sapinek publikoki defenditu du, INSEEko arduradunak ere bai.

Deltourren defentsa beti izan da argia, *lanceur d'alerte* moduan aurkeztu da, etekin pertsonalik bilatu ez duen ohar-tarazletzat. "Harro nago salaketok ondorio zehatzak ekarri dituztelako, hartu ditudan arriskuak zerbaiteko balio

izan dute. Europako arauetan aurrerapen bat egin da". Frantziar Sapin 2 legea aipatzen da, administrazioaren gardentasuna eta salatzaileen segurtasuna bermatu behar dituen.

*LuxLeaks*en bigarren iturriak, Raphaël Halet, ez du zorte bera izan. Kalte-ordaina kobratuta kaleratzearen truke PwCekin konfidentzialtasun klausula zeukanez sinatua, publikoki ezin izan du aurpegi eman. Horrek utzi du laguntza ofizial eta finantzazkorik gabe epaiketan, eta Deltourri eman dioten Europar Herriarraren Saria gabe. Halet aukeratu bertan egin du jauzia eta hasi da publikoki mintzatzen.

Deltour langile kualifikatua zen moduan, Halet idazkari xume bat zen, dokumentuak eskanerrez pasa eta kopia-tzearen arduradun. *Cash Investigation* programan ikusi zuenean lehen filtra-

zioa, orduan ohartu omen zen bere lan mekanikoaren garrantziaz. Eta kazetariari dokumentu gehiago eskuratu zizkion.

Epaietan Halet azaldu zuen nola pasatzen zizkien ATA itunak egunero Luxenburgoko ogasuneko funtzionarioei, eta zein azkar bideratzen zituzten, hiru minututan milioika euro jokatzen zen ATA bakoitza. Munduko edozein herrialdek zergatan kobratu gabe utzitako milioi asko.

Adibidez. Walmart amerikarrak Luxenburgon, denda bakar bat eduki gabe, 64.2000 milioi dolar balio duten 22 sasi-konpainia dauzka eta 2010-2013 epean 1.300 milioiko etekinengatik %1 baino gutxiago ordaindu zuen. Industria hori antolatu zuen Jean-Claude Juncker da gaur Europako gobernuaren lehendakari. Osoa ardion artzain. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Irantzu Varela, Faktoria Lilaren sortzaileetako bat

«Emakumeok geure desirei erreparatzen hasten garen egunean, akabo patriarkatua»

Oroz gain, komunikatzen daki Irantzu Varela. Hainbat bideo eta hitzalditan ikusi duzu, baina, aurrez aurre berarekin topo eginda, indar berberarekin harrapatzen zaitu, eta batez ere, barrez leherrarazten.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nola iritsi zinen feminismora?

Gogoan dut, txiki-txikia nintzenetik ez zitzaizkidala gustatzen neska izateari buruzko hainbat gauza. Adibidez, bakeroen filmak ikusten nituen eta, film horietan, izaki ezgaia zen neska beti, denean lagundu behar zitzaion, borroketan garrasi baino ez zuen egiten... Amorratzekoa zen, zeren figura horrekin identifikatzen nintzen, baina nik ez nukeen hori egingo. Handitu ahala, behin eta berriz sentitzen duzu haserre hori. Gero, iratzartze moduko bat izan zen unibertsitatea.

Kazetaritza ikasi zenuen, ezta?

Bai. Pentsa, Leioan, kazetaritza ikasten, garai haietan... Kontzientzia politikoa hartu nuen. Begiak ireki nituen eta ikusi nuen gauza mordo bat ari zirela gertatzen munduan, neuk susmatu baino askoz gauza gehiago. Era berean, ohartu nintzen zer bait egin nezakeela. Izugarri gozatu nuen. Kolpean hazi izan banintz bezala, unibertsitatean ulertu nuen ez zegoela arazotan sartzea beste aukerarik.

Gerora, kazetari jardun duzu?

Bizitza osoan nahi izan dut kazetari aritu, baina gerra-erreportaria izan nahi nuen, Rosa María Calafen eta Carmen Sarmientoren pare, eta ikasketak amaitzean, konturatu nintzen oso urrun zegoela aukera hori. Beraz, interesatzen ez zitzaidan komunikabide batean bekadun aritu baino, lankidetzamastrer batean sartu nintzen. Venezuelan egin nituen praktikak, eta giza eskubideen erakunde bateko komunikazio-buru jardun. Chávezek hauteskundeak irabazi eta orduantxe iritsi nintzen hara: hori bai hori arazotan sartzea. Ametsetakoen enplegua zen: Caracazoko biktimen familien elkartean egiten nuen lan. Besteak beste, testigantzak biltzen nituen: familia desagerrarazi zioten jendearena, torturatu zituztenena... Hor ikusi nuen aurpegi asko dauzkala bortizkeriak eta oso garrantzitsua dela horien guztien berri ematea. Salsa dantzatzeko ere ikasi nuen. Gero, denbora bat pasatuta, itzuli egin nintzen.

Eta nola sortu zen Faktoria Lila?

Adiskide batek eta biok kooperatiba abiatu genuen orain dela 9-10 urte. Helburua: lankidetzak, genero berdintasuna eta komunikazioa uztartzea eta jorratzea. Kazetariak ginen biak, lankidetzan arituak, eta asko interesatzen zitzaigun feminismoa. Instituzioekin eta beste

Irantzu Varela

Portugalete, 1974

Kazetaria da, ikasketaz; hala ere, garapenerako lankidetzan jardun du hainbat urtez. Militante feminista ezaguna da. Gaur egun, Faktoria Lila ekimenaren barruan, blog batean idazten du, eta desprintzesatzeko tailerrak ematen. Bideo laburrak egiten ditu *La Tuerka* interneteko programan. Espainiako senaturako hautagai izan zen 2015eko abenduan, EH Bildu koalizioaren eskutik.



hasi ginen lanean. Berdintasunarekin lotutako gero eta gauza gehiago hasi zitzaizkigun iristen eta erabaki genuen feminismoa ere ager zedila gure webgunean; garai hartan, jendeak arbuiazen zuen terminoa. Baina hainbeste gauza ateratzen zitzaizkigun ezen pentsatu baikenuen feminismoko gauza guztiak espazio batean batzea, eta espazio hori izan zedila kaletarragoa. Horixe da Faktoria Lila. Gero, halako tamaina hartu duenez, proiektu bat da bere kabuz, eta gaur egun, proiektu horretan nabil buru-belarri.

Zer lan-ildo jorratzen dituzue?

Tailerrak egiten ditugu, aurrez aurre eta sarean. Faktoria Lilaren helburua da feminismoa itzultzea, hasiberriei begira. Emakume guztiok bizi dugu patriarkatua egunero, hamaika modutan; hortaz, gure helburua da diskurtso feminista egunerokora ekartzea. Batez ere, amodio erromantikoa eta edertasuna lantzen ditugu. Uste dut horiek direla desberdintasunaren funtsezko esparruak.

Bizipenetatik abiatzea da gure proposamenaren gakoa. Ez dugu ezer azaltzen, baizik eta tresnak eman, norberak igar dezan. Patriarkatuan, ezinbestean sentitzen dugu modu patriarkalean; bestela, zainak mozten edo kaleak hankaz gora jartzen emango genuke eguna. Guztiz mingostu gabe bizirauteko, patriarkatuaren konplize bihurtu behar duzu; beraz, kontua da norbera ohar dadila zer-nolako konplizitateak eraiki dituen, patriarkatuan bizirauteko. Deskubritzen badituzu, jada ez dute balio, eta zu zeu askoz pertsona askeagoa eta zoriontsuagoa zara.

Zergatik iruditzen zaizkizu bi lan-ildo horiek hain funtsezko?

Badu zerikusirik konkistatu dugun guztiarekin. Legeetan berdintasuna dago, hori egia da. Espainiako Estatuan, legez kanpokoak da bazterkeria, eta eskubideak dauzkagu. Hainbat mendetako borroka feministari esker lortu dugu berdintasun formala, baina, gizartean, esku-lan merkea gara oraindik, eta etxean, eskla-boak gara, jarraitzen baitugu zaintza-lanen %80 musu-truk egiten. Aitzakiaren bat topatu behar zuten, hartara, lan horiek egiten jarrai zezaten halako emakumeek: ikasi, gidatu, kontu korronte bat eduki eta ekonomikoki biziraun dezakegunok. Bazirudien, horiek denak lortuta,



“Besteen gustuko izatea da patriarkatuaren agindu nagusia orain”.

pikutara bidaliko genituela patriarkatua, etxeko lanen inposizioa eta bigarren mailako langileak izatea, baina...

Amodio erromantikoaren ideologia izan ote da zapaltzen jarraitzeko tresna?

Ziria sartu digute: utzi dugu kontrola gaitzaten, monogamia eta heterossexualtasuna inposa diezaguten, esan diezaguten nola maitatu, nola jo larrua, eta ezar diezaguten maitasuna eta sexua elkarrekin doazela beti.

Arazo bat daukagu maitasunarekin, hori argi dago, zeren OME Osasun Mentalaren Elkartek dio, bere bikotekideak edo bikotekide ohiak akabatzen dutela munduan erailtzen diren emakumeen erdia. Hortaz, amodioaren espazioan, dohainik zaintzeaz eta gainerako guztien beharrak asetzeaz gain, akabatu egiten gaituzte. Ideologia horren izenean erailtzen gaituzte. Espainiako Estatuko genero indarkeriaren legeak ez zaitu kontuan hartzen, salbu eta harreman sentimentala bazeneukan erasotzailearekin. Gasteizen oraintxe erail duten emakumea, adibidez, ez da genero indarkeriaren biktimatzat hartuko. Horrexegatik, eraildako prostitutak ere ez dituzte hartzen halakotzat, eta ezin uka genero indarkeria jasaten dutenik. Ideologia patriarkalari eta kapitalismoari ezin hobeto dator kio gaur egun indarrean den amodio erromantikoaren ideia. Norberak bilatu behar du nola maitatu nahi duen, nola egin nahi duen txortan, eta nahi baldin badu, lot ditzala biak.

Edertasuna ere aipatu duzu.

Oso ondo azaltzen du hori Naomi Wolfek. Hain zuzen, uste dut emakume guztiok irakurri beharko genukeela *The Beauty Myth* [Edertasunaren mitoa],

apirilean-edo, eta gero utikan esan bikini-operazioari. Liburu horretan argi dio Wolfek: otzan nahi gaituzte. Munduko emakume guztiok gaude egiturazko zapalkuntza baten pean: zergatik arraio onartzen dugu? Bada, bestelako gauza batzuei eskaintzen diegulako energia, zeren eta gustuko suertatzea da patriarkatuaren agindu nagusia orain, eta gainerakoen gustuko izateko oso onak izan behar dugu, mundu guztia zaindu, mundu guztiaren beharrak aurreikusi eta ase; eta oso itxura oneko ere izan behar dugu, alegia, garaia, meheak, titi handiekin, gazte betiko, ile urdinik gabe, orpoak arrakalatu gabe, onddorik ez azazkaletan, gorputzean ilerik ez baina buruan sekulako adatsa, eta kizkurrik gabea. Izugarria da, eta ezinezkoa, gainera. Nahita ipini digu patriarkatuak halako helburu bat, ez dezagun sekula lor. Mundu guztiaren gustuko izatea bazter uzten badugu, hasiko gara geure buruaren gustuko izaten saiatzen, gauza asko jarriko ditugu zalantzan, eta hortxe amaituko da patriarkatua.

Nola abiatu zen *El Tornillo*?

Akaso legenda hondatuko dut, badakizu, DVDan sorta ateratzen dugunerako, baina... Komunikazioari eta iraultzari buruzko mahai-inguru batean parte hartzeko eskatu zidaten, eta han zegoen *La Tuerkako*, artean ez baitzen Pablo Iglesias. Jendetza bildu zen, oso publiko maskulinoa zen, eta beraz, aukera aprobetxatu nuen, eta nire onenak eman. Zur eta lur geratu zen Iglesias, eta gero, mahaiaren osteko potean, galdetu zidan ea egingo nituzkeen bideo labor batzuk. Baietz esan nion. Hasiera batean, *La Tuerkari* berari kritika feminista egiteko sortu zen. Hala ere, bigarren edo hiruga-

rren programa iritsi orduko, nahi nuen hasi nintzen hizketan. Sarritan, ez diot agenda politiko orokorrari jarraitzen, eta nahita egiten dut, izan ere, uste dut geure agenda daukagula feministok, eta heldu behar diogula.

Bideoen harira eraso asko jaso dituzu.

Izugarria izan zen lehen denboraldia. Bigarren programa atera orduko heriotza-mehatxuak egin zizkidaten. Halako aurreikusgarriak dira matxunoak; beti iraintzen naute berdin, nire fisikoa eta nire sexu-bizitza hizpide.

Nire sexualitatea, batetik, oso bizia da: zakil-jale, puta... Edo, bestela, ez nau inork ukitu nahi, ezta makil batekin ere. Batzuetan, esaldi bakarrean esaten didate hori guztia. Asko interesatzen zaie nire sexu-bizitza, proposamenak ere botatzen dizkidate: ea nondik sartuko didaten zakila, taldean sartuko didatela... Gero, jakina, lesbiana esaten didate etengabe, irain moduan. Nire gorputzaz, aldiz, zazpi bilioik esaten didate lodia eta itsusia naizela, eta zazpi bilioitik batek edo bik esaten dit oso ondo nagoela.

Nola egin aurre horri?

Hasieran, denak irakurtzen nituen eta esaten nuen ez zidatela eragiten. Ez da egia. Ez naiz beldur; azken batean, beldurra aukera bat da, eta ez dut onartuko. Ez naute baldintzatzen, inondik ere, baina eragiten didate, zeren eta zeuk badakizu zerbait egiten ari zarela horixe delako bidezkoa, ez duzula egiten zeuregatik bakarrik, baizik eta aski delako, eta bidegabekoa da horren ondorioz hainbeste eraso jasotzea, halako eraso bortitzak, gainera. Ez naute beldurtzen eta ez naute baldintzatzen, argi daukat hori; hala ere, haserretu egiten naiz.



ekin S. Coop.

Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)

48340 AMOREBIETA

www.ekin.es



Umorez erantzuten diezu sarri.

Eta nola erantzungo diezu, baldin eta iraintzen bazaituzte (puta, etarra, behia, feminazi), eta bi emakume erail dituzten egunean esaten badizute ea zer gertatzen den beren gizonak suizidiora bultzatzen dituzten emakume horiekin guztiekin? Sekulako arma da umorea; feminismoan ari gara deskubritzen tresna hori. Umorea erabilia, armagabetu egiten dituzu. Zuk zenbat eta barre gehiago egin, haiek gero eta gehiago haserretu. Bideoak zenbat eta sarkastikoa-go, matxunoen sumina orduan eta bortitzago eta handiago. Serio ari dira haiek eta zuk gero eta barre gehiago egiten duzu. Uste dut orain arte gutxietsi egin dugula umorearen indarra.

2015eko abenduan, Espainiako senaturako hautagai izan zinen, Bizkaian, EH Bildu koalizioaren eskutik. Onintza Enbeitarekin batera egin zenuen kanpaina, Kongresurako hautagaia baitzen hura. Kanpaina berezia egin zenuten, ezin uka.

Hasteko eta behin, itzel pasatu nuen, eta funtsezkoa da hori. "Bizkaitik Madrilerara *todo son curvas*" leloarekin hasi ginen. Emakume feministak eta lodiak gara Onintza eta biok. Izugarri politikoa da hori, ez soilik geure buruak emakume feministatzat jotzea, ezpada onartzea ez garelako 38 neurrian sartzen, ezta 42an ere. Politikoa da esatea ez gaudela onak, ez behintzat patriarkatuak agindu moduan. *El Tornillori* esker konturatu nintzen feminismoan beti ari garelako gorputzaz, "gure gorputza, gure gudu-zelaia", baina, bat-batean, gorputza ez da halako gauza abstraktu bat; bat-batean, borrokaren parte dira Irantzuren aurpegia eta gorputza: hortxe daude, jendeak ikusten ditu... Onintzaren eta



Off the record: Esker ona

Bere jardunaren ondorioz jasotzen dituen erasoez mintzatu gara elkarriketan, hala ere, aurrez aurrekoan erantzun oso positiboak jasotzen dituela azpimarratu du Varela. "Gehien-gehienek eskerrak ematen dizkidate egiten dudana lanagatik. Izugarri hunkigarria da hori".

Irantzuren gorputzak mahai gainera ekarri ezean, politika egiteko aukera galduko genuen. Halaxe da, nahiz eta nekez ulertu hori gizona bazara, edo edertasun-kanonarekin bat egiten baduzu (dena den, oso emakume gutxi sentitzen dute edertasun-kanonarekin bat datozenik).

Zer ikasi zenuen kanpainari esker?

Ikasi nuen, besteak beste, zer-nolakoa den emakume izatea halako mundu batean. Sarri gogorarazten dizute emakumea zarela, zeuk zeure buruari gogorazai baino askoz sarriagotan. Gizonak akaso harrituko dira, baina hainbat espaziotan egoten gara emakumeok, etengabe pentsatu gabe emakume garelako. Halako espazio maskulinizatuetan, berriz, gizona beteta egon ez ezik gizon boteretsuak baitira horiek, etengabeko presentzia da emakumea, nabarmena, pottoki bat bazina bezala.

Ekaineko hauteskundeetan, hautagaitza aldatu da. Zer uste duzu horri buruz?

Zenbait irudituko zaio apustu ausartegia zela Onintza eta biok hautagai aurkeztea, feminista publikoak biak, ahoan bilorik gabeak, baina nik uste dut zenbait gauzatan ez dela atzera egingo. Azken batean, horren guztiaren aurpegia baino ez ginen; alboan geneuzkan kide feminista guztiak, babes ematen. Pauso bat egin zuten aurrera alderdiaren oinarriko militanteek eta alderdiak berak, eskertzekoa da, eta hainbat gauza ez dira baztertuko, hala nola feminismoa programan aipatzea, esplizituki, kanpainetan emakume feministak egotea lehen lerroan, agendan sartzea feminismoak betidanik jorratu dituen gaiak... ■

Zure jendea, zure
hedabidea, zure iragarkia:

JARRI PUBLIZITATEA HEMEN

943 371545 • publiz@argia.eus • www.argia.eus/tarifak

ARGIA

Ezkerra jokoz kanpo “Brexit”-ean

Katalunian CUPEk Erresuma Batua (UK) Europar Batasunetik (EB) irtetea babestu zuen bitartean, Ezker abertzalea *Brexit*aren aurka agertu zen. Espainia erreformatzea ezinezkoa dela diotenek Europar Batasuna erreformatu daitekeela errepikatzen dute. Arraroa. Espainia zaila bada erreformatzea, askoz ere zailagoa da EB erreala erreformatzea. Halere, EB alda daitekeela pentsatzen bada, UK-ren irteera beharrezko baldintza da, nahiz eta ez izan nahikoa. Britaniarrek urte asko daramatxate EBren barne integrazio eta demokratizazio prozesua oztopatzen.

Independentismoak askotan errepikatu du Kataluniaren eta Euskal Herriaren sezesioak Espainiako sektore aurrerakoientzat onak izan daitezkeela; logika berdina aplikatuz gauza bera esan daiteke britaniar sezesioaz EBrentzat. Halere, Ezker abertzaleak *Brexit*aren aurkako jarrera justifikatzeko ezker nortasunezko argudioak erabili zituen, irteeraren aldekoen artean nagusi zen eskuin populistak azpimarratuz. Bitxia, ez baitut gogoratzen Ezker abertzalearen iritzi publikorik Europan egon diren sezesio erreferendumetan ezetza babestuz, nahiz eta kasu gehienetan baietzaren lidergoa eskuineko neoliberalen eta eskuin muturren esku egon zen.

*Brexit*a eskuinarekin identifikatzea sinplekeria da. Sindikalista ugarik, Respect alderdiak, sozialistek eta komunistek EBtik irtetearen aldeko kanpaina egin dute. Badira laboristen eta berdeen artean irteera defendatu dutenak ere, adibidez, Jenny Jones berdeen lider historikoa. Tariq Ali, jatorri pakistandarreko idazle eta zinemagile ezkertiarrek ere irteera defendatu du. Edonola ere, ezin uka daiteke ezkerrentzat egoera deserosoa zela, Jeremy Corbyn ikustea baino ez zegoen: alde batetik, historikoki EBtik kanpo egotearen aldeko



Asier Blas

EHUKO IRAKASLEA

@AsierBlas

“Brexit”a eskuinarekin identifikatzea sinplekeria da. Sindikalista ugarik, Respect alderdiak, sozialistek eta komunistek EBtik irtetearen aldeko kanpaina egin dute. Badira laboristen eta berdeen artean irteera defendatu dutenak ere, adibidez, Jenny Jones berdeen lider historikoa. Tariq Ali, jatorri pakistandarreko idazle eta zinemagile ezkertiarrek ere irteera defendatu du

bandera eraman zuenak ez zuen eskuin populistarekin nahastuta ikusi nahi, baina bestalde, ez zegoen oso gustura

EB ez demokratikoan eta neoliberallean gelditzearen alde kanpaina egiten.

Klase apalek beraien haserreaz azaltzeko eta gauzak aldatzeko *Brexit* botoa erabili zuten. Trukean denetik deitu zaie, atzerakoi zaharrak eta xenofoboak besteak beste. Horretarako erabili diren datuak YouGov enpresak egin zuen inkesta izan da (erreferenduma-ren emaitzak asmatu ez zituen). Lagin oso txikiarekin, 1.652 inkesta, adin tarteari dagokionean ez zeukan inolako adierazgarritasun estatistikorik, baina halere, mantra bezala errepikatu dute hedabideek gazteen artean EBn gelditzearen aldeko babesa zela nagusi. Inkestaren arabera 24 urte arteko gazte segmentuaren parte-hartzea %36koa izango zen soilik. Hau Zientzia Politikotik klasikoak da, klase geroz eta altuagokoa izan, orduan eta gehiago bozkatzen da. Portaera hau adinarekin gurutzatzen denean oraindik eta gehiago handitzen da diferentzia. Hots, klase apaleko gazteek oso gutxi bozkatzen dute, heldu ahala geroz eta gehiago bozkatuko dute, baina beti klase ertain eta altukoek baino gutxiago.

Azkenik, erraza da xenofobia akusazioak egitea soldata onekin eta klase baxuko etorkinen etxeetatik urrun bizi-tzen bada. Marxek esplikatzen zuen lan-gabetuak direla burgesiaren ejertzitua, horrela soldaten kostua txikitu egiten da. Gaur egun, Erresuma Batua ia langabezia teknikoan egonda, burgesiaren ejertzitua etorkinak dira. 2001etik britainiar klase apalaren soldadak txikitu egin dira eta erosahalmena izugarri gutxitu da. Eskuin populistak arreta jarri dio arazo honi langileen arteko gorrotoak hauspotuz. Berriz, ezkerre ez da gai izan klase apalaren interesak hartu eta defendatzeko, erakutsiz etorkina klase aliatua dela aberatsenen interesen kontra egiteko eta aberastasuna hobeto birbanatzeko borrokan. ■

Hizketa kontuak

Euskadi Irratiko esatariak horrela hasi zuen zientzia programa: “Gaizki esandakoak onartu behar dira. Noski baietz”. *Noski baietz* petrala kenduta ere, ez zitzaidan zientifikoa iruditu. Gaizki esandakoak zuzendu egin behar baitira. Entzuten jarraituta, imajinatu nuen esanahia: norberak egindako akatsak aitortu behar dituela alegia. Txikitako maisuaren txantxa gogoratu zidan: “*Fa de erratas. Donde figura fi, debe decir fu*”.

Hizketa kontuak ez dira txikikeriak. Nola adierazi, horrelaxe komunikatzen dugu. Hizketaren baldarkeriak, zabarkeriak edo akatsak beti dira ezkutuko zerbaiten agerpen. Kaixo (*¿qué hay, txo?*) modu umoretsuan erabiltzen zen XX. mendearen hasieran. Egun gipuzkoar eta bizkaitar batzuen agur erarik jatorrena da, nafarren irribarrea sortzen duelarik. Derrigorrezko (“*de rigor*”) hitz itsusi bortxatzaileak hezkuntza ofizialaren maila bat izendatzeko ohorea lortu du. Auskalo xelebreak (“*a buscarlo*”) oraindik ez du hierarkian salto handirik egin baina prestatzen ari da. Federiko Krutwigek aipatzen zuen aspaldi euskaldunok arrunkeria jatortasunarekin nahasteko joera genuela. Bizi al da oraindik erabilera horietan?



Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA

Kokoteraino nauka
“horidaismoa”-k.
Euskal hedabideetako
elkarrizketetan, hitzetik
hortzera agertzen da
“hori da” delakoa, “bai” edo
“ez” berak baino gehiago

Kokoteraino nauka *horidaismoak*. Euskal hedabideetako elkarrizketetan, hitzetik hortzera agertzen da “hori da” delakoa, “bai” edo “ez” berak baino gehiago. Galderaren txarra agerian jartzen du, nonbait ihardespena itaunean bertan baitago eta erantzuleak

konfirmatu besterik ezin du egin. Baina formari dagokionez... “Horixe” esaten ahaztu al zaigu ba? Joandakoan irratian mago bati “horixe” erantzuten aditu nion eta, benetako mago iruditzeaz gainera, ia susara jarri ninduen.

Irrati eta telebistetan elkarrizketa amaitzean gizalegez gonbidatuari eskerrak eman eta jada inork ez du “ez horregatik” erantzuten. Orain “esker-rak zuei” esaten da. Zergatik? Agian elkarrizketa gehienak autobonborako aitzakia direlako, gonbidatuaren disko, liburu edo bestelakoa saltzeko lagungarri? Antzokietan publikoaren txaloak jasotzean zabaldu den beste ohitura gogorazten dit: aktore eta musikariek, eurek ere publikoari txaloka hastea. Nik nahiago arrain saltzaileari txalo egin antxoa onak ematen dizkidanean.

Gure Musika Eskolan “aditu” bat kontratatatu zuten irakasleei ebaluazio kriterio egokiak izaten laguntzeko. Irakasleekin bileretan hilabeteak eman ondoren, konklusio mezu hau bidali zigun (gaztelania hutsez noski): “*Poco a poco el trabajo va dando sus frutos. Se debe calificar al alumno por su asistencia, actitud y esfuerzo. Estas conclusiones han salido del grupo de Moderno* (sic)”. Papo. Antigoalekoek ere bagenekizkien.

“Hori da? Noski ezetz” (sic). ■



Gerra galdua



Iñaki Odriozola
IRAKASLEA
@Inaki_Odriozola

2008an izan genuen sentsazio izugarri hura, mundu “osoko” sistema kapitalistaren porrota bazitekeela pentsatzea, beldurgarria bate-tik, motibatzailea bestetik, pasatu zaigu. Benetan, ez nuen uste izan horrelako desestabilizazioa egon zitekeenik. Bestela pentsatzen nuen: arloka-ko krisiak izango zirela, beti ezagutu izan ditugun moduan, baina sistema osoa, nahita, desorekatzea ezinezkoa zela, hainbeste egokitzapen eta gero.

Baina ez! 2008tik aurrera, kapitalismoak egin duen sistemaren “autobirrintzea” eta berreraikitzea harrigarria izan da. Nik uste, Lehen Munduan ezkerreko sentitzen garenok, ekonomiaz jantzita ez gauden gehientsuok, ahozabalik utzi gaitu gertatuak. Hori gaitasuna, dozena erdi urteetan, ekoizpena erabat txikitu eta modu berriak asmatzeko, eraikitzeko eta martxan jartzeko. Eta gu, atzaparra zurrupatuaz ikusle lez, “ezer” egin gabe (hamaika ekintza eta ekitaldi egin ditugu bai, baina ez eraginkorrak, eta gehienak dagoe-nari eusteko asmoz). Zer egin, ordea, horrelako uholde erraldoiaren aurrean?

Sei urteren buruan, denda edo taberna txikie-netatik hasita, estatu osoak ezabatu dira. Enpresa txiki eta handiak pikutara joan dira; bankuak eta entitate finantzarioak itxi dituzte, beste batzuk reflatatu eta bat egin; Irak, Libia, Siria eta Afrikan egitura estatalak desegin, milioika jende mi-gratzaile bihurtuz, milioika jende sakrifikatuz; zerbitzu publikoak murriztu dira ia toki guztie-

tan, lan baldintzak gaiztotu munduko ertzetan esklabismoraino, eta jendarte aurreratuenetan ere prekarietatea gailendu da. Dena gure begien aurrean.

Eta atzera begiratzean, orain, zera iruditzen zait, desestabilizazio hori ez dela izan deskon-trolatua, eta estatuburu morroien laguntzaz gain, botere ekonomikoaren menpeko politika-riez gain, soldatapeko kazetari eta epaileez gain, norabide bat egon dela, gehiengoak ez genekie-na, inoiz jakingo ez duguna, gure nahimenaren gainetik inposatu zaiguna, ezinbestean, euren etekinak pilatzen jarraitzeko.

Azken urteetan ARGIA n idatzi ditudanak berri-rakurri eta, nago, inozo bat besterik ez naizela, eta irakurri nauzuenak ere bai, nik esandakoari noizbait arrazoia eman badiozue behintzat. Hitz eta ideia landuak, desio antzuak, borondate oneko berba hutsalak. Hazkuntzaren beharra zalantzan jarritz, oinarritzko soldata aldarrikatuz, soldatape-ko lanaren kontra, ekonomia planifikatuaren alde, merkatutik kanpoko eremuak sortu beharra... Arrastorik utziko ez duten kontzeptuak. Ja.

Jendarte aurreratueta geure burua ezkertiar-tzat dugunok, amateur gizagaixoak besterik ez gara izan, eta eurak, benetan profesionalak, ideia argikoak eta eraginkorrak. Hurrengo krisi handia ez dut ezagutuko, baina pentsatzen dut hobeto prestatuta egon beharko dugula –dutela–, indar gaizto honi aurre egiteko. ■

Emakumeak bakarrik?



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Emakumezkoentzako espazioak sortzen ditugunean, gai konkreturen batean lan egin nahi dugulako edo emakumez osatutako talde batekin ekintzak egin nahi ditugulako, askotan –gehiegitan– entzun behar izan dugu: “Baina zergatik emakumeentzako bakarrik?”.

Azalpenik beharko ez lukeen erabakia den arren, askotan eman behar izan ditugu zergatiak. Eta badakizue zer? Nahiko aspertuta nago hauek eman behar izateaz. Gainera, hainbatetan asko-tariko ekintzak antolatu ditugunean eta hauek edonorentzako irekiak izan direnean, hori kasualitate! Kexatzen ziren horiek ez dira inoiz azaldu.

Feminismoa landu, ikasi eta eztabaidatu nahi duenarentzat badago nahikoa foro. Eta topatzen ez baditugu, beti sortu ditzakegu guretzat garrantzitsuak diren gaiak lantzeko espazioak. Beraz, normalean kexatzen zaren horietakoa bazara, beste behin egin aurretik, pentsatu zenbat ekin-tza feminista mistotan hartu duzun parte, zure ekarpen konstruktiboa zein norabidetan egin nahi duzun eta ea galdera horrek eraikitze balio ote duen. Galdera horiek erantzutekoa bazara, ez gal-du indar handiegia merezi ez duenarekin. Zuk oso ondo dakizu zein den bidea, modua eta aliatua. Segi lanean eta batez ere gozatu bideaz ! ■

1936ko golpistei erantzuna

GREBA OROKORRA GASTEIZEN

1936ko uztailaren 18an militarrek altxatu zirenean erantzuna berehalakoa izan zen eta langile ezkertiarrek euren arma nagusia erabili zuten horretarako: greba orokorra. Zenbait tokitan, Donostian kasu, anarkistek eutsi egin zuten. Gasteizen ere greba orokorrak hainbat egunez iraun zuen, baina beranduegi zen, armarik gabe eta Araba ia osoa Molarekin bat eginda, hiriburuko erresistentzia eta bere oroimena betirako galdu ziren.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIAK: GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

Barrikadarik ez zen jaso Gasteizko kaleetan duela 80 urte, ez zen errepublikaren aldeko manifestazio eta proklamarik izan, baina Arabako hiriburuan golpisten garaipena ez zen batere argi egon gerra egoera ezarri eta hainbat egun igaro arte. Uztailaren 20an, astelehena, komunista, sozialista eta anarkistek grebara deitu zituzten langileak eta hiriko saltoki nahiz tailerrak itxita egon ziren. Uztailaren 23an hegazkin batek esku-orriak jaurti zituen *Langileak!* izenburuarekin:

“Zuen familien bake eta lasaitasunarengatik, langile zintzoak, hartu ezazue laguntasunez mugimendu zibiko-militar hau, itotzen gintuen ustelkeria eta zaborra jasotzera baitator”.

Zer gertatu zen egitan altxamendua-ren lehen egun haietan? Gasteiztarrek beso zabalik egin al zieten ongi etorria probintziako erreketek saldoei? Astelehen egunsentian kaleetan lurrunik ere ez zen entzuten: greba, beldurra, desinformatzioa... Balantzak beste aldera egin



Arabarrek 1936ko altxamenduari guztiz bat egin zutela dioen imajinariaren kontrara, kontzientzia errepublikarra ere oso errotua zegoen lurraldean, bereziki Gasteizen, langileen borrokek eta golpearen lehen egunetako erresistentziak erakusten dutenez. Irudian, 1932an Bigarren Errepublikaren urteurrenean Gasteizko kaleetan desfilatzen.

zezan, txinparta baino ez zela falta izan pentsatzeko zantzuak badaude; Gasteizen errepublikar kontzientzia eta langilegoaren antolakuntza aski errotuta zeudela erakusten dute aurreko urteetako borrokek. Baina gobernadore zibilak ez zien Fronte Popularreko eta EAJko kideei armarik eman nahi izan, eta behin agintea militarren esku, “jarrera susmagarrian” zebilen ezein jenderi tiroa jotzeko agindua emana zegoen. Grebak porrot egin zuen.



Lana, langilearen arma

Makinaren garaia hasi eta lana merkanztzia bihurtu zenetik, langileek euren duten altxor bat erabili izan dute hobekuntzak lortzeko arma nagusitzat: lanera ez joan. Greba orokorrak esanahi ugari izan ditu historian zehar eta XX. mende hasieran kutsu iraultzailea hartua zuen. Anarkistek eta komunistek emantzipaziorako lehen pausotzat zuten eta ez da harritzekoa 1936an Marokon militarrek altxa zirela jakiterakoan

hainbat hiritan lanuzteak deitzea, aste-burua izanik ere.

Hala gertatu zen Madrilen eta Bartzelonan. Azkeneko honetan, Companysen Generalitatearen duda-mudak eta agintarik eza ikusita, langileek hiriko hainbat biltegi asaltatu eta armak eskuratu zituzten. Bartzelonan CNT antolakundea oso indartsu zegoen, 20.000 miliziano gutxienez bazeuden iraultzarako prest. Ehun-fabriketako sirenak entzun bezain laster kuarteletatik hiri erdigunera

zihozten soldadu matxinatuen kontra jo zuten, asaltoko guardien laguntzaz, greba deialdia horretarako kontsigna balitz bezala.

Langileek protagonismo bera izan zuten industria-sare sendoa zegoen beste toki askotan, Miranda Ebron adibidez. Arabako mugan dagoen herri koxkorrean trenbidearen etorrerak bertakoen izaera obreroa bultzatu zuen. Uztailaren 18an altxamendua gertatu bezperan emakumeek manifestazioa egin zuten



Teodoro González de Zarate Gasteizko alkate errepublikarra (ezkerreko irudiaren erdian, kapelarekin) 1937ko martxoaren 31n hil zuten faxistek Azazetako portuan beste 15 lagunekin batera, tartean Jose Luis Abaitua EAJko kide ezaguna. Jeltzale askok larrutik ordaindu zuen errepublikaren alde egin izana, Arabako buruzagitzako beste askok, ordea, bandoz aldatu zuen berehala.

ogia 0,60 pezetan zegoela salatzeke, eta irin-fabrika ere eraso zuten. Hurrengo egunean herria trenbideetako langileen esku geratu zen, harik eta guardia zibilen destakamendu batek haien kontra egin zuen arte. Gazte askok Zadorra ibaian gora ihes egin zuen, baina Zanzbranara iristean erreketek eta falangistak zituzten zain, apaiz batek gidatuta, eta tiroz josi zituzten. Gutxienez zazpi hil zituzten, euskal lurretan gertaturiko lehen sarraskietakoa izan zen hura.

Gasteizen baina, XX. mende hasieran apenas zegoen fabrika handirik, Ajuria familiaren esku geratu zen Metalúrgica Vitoriana *Meta* zaharra izan ezik; bertan nekazaritzarako makinaria egiten zuten. Gasteiz, Iruñea bezala, “Covadonga berri” baten hiriburua zela pentsa zitekeen, landa gunek, karlismoak eta burgesia kontserbadoreak dominaturiko ernamuin konkistatzailea. Eta hala ere, greba orokorra? Erraza da ulertzea. Hiriko tailer txikietan, ostatuetan, okindegi eta abarretan sindikatuak gero eta antolatuko zeuden eta aurreko urte eta hilabeteetan jadanik erakutsia zuten borrokarako gaitasuna.

Gasteiz lasaia?

Altzamendua gertatu baino aste batzuk lehenago beste greba orokor garrantzitsu bat izan zen Gasteizen, kasu honetan lan baldintzak hobetzea eskatzeko: lan astea 44 ordura jaistea, ixtear dauden industriak langileen esku geratzea, destajuko lanik eta ordu estrarik ez, etxebizitza duinak... Sindikatu guztiak inplikatu ziren

» Gasteizen apenas zegoen fabrika handirik. Iruñea bezala, “Covadonga berri” baten hiriburua zela pentsa zitekeen. Eta hala ere, greba orokorra? Erraza da ulertzea: hiriko tailer, ostatu, okindegi eta abarretan sindikatuak gero eta antolatuko zeuden, eta aurretik jadanik erakutsia zuten borrokarako gaitasuna

grebarekin, UGT, ELA-STV, CNT eta baita Langile Katolikoen Sindikatua (SOC) ere. Lehenik komisio bat osatu zuten Arabako patronalarekin negoziatzeko, baina enpresariak eskakizunei entzungor egitean grebara deitu zuten. “Badakigu Gasteizko langile klaseak duen espiritua zein den –dio haien komunikatuak– eta ez zaigu beharrezko ere iruditzen esatea borrokatu egin behar dugula”.

Maiatzaren 25ean hiria erabat gelditu esnatu zen: “Zalantzarik gabe, langile-fronte zabalena, indartsuena eta aho batez Gasteizen iraupen luzeena izan duen greba da”, onartu zuen Tomás Alfaro argazkilaria eta jarduneko alkate

errepublikarrak. Aste osoan mobilizazioak eta liskarrak izan ziren, saltokietako kristal batzuk hautsita, ilarak oinarritzko elikagaiak lortzeko... Gobernuak ordezkaria bidali zuen greba batzordearekin konponbide bat adosteko eta maiatzaren 29an 3.000 langiletik gora bildu ziren asanbladan Frontón Vitorianon. Hurrengo egunean akordioa lortu zuten, eskakizun ugari aintzat hartuta, tartean 44 orduena.

Euskal Herriko eremu industrializatuenetan –Bizkaian eta Gipuzkoan– ez zen halako mobilizazio handirik izan hilabete horietan, bai ordea “lasaiagoa” omen zen Gasteizen. Zergatik? Ezkerreko gobernuaren aldekoen nahiz kontserbadoreen ustez, greba hura “lekuz kanpo” zegoen eta Espainian bizi zen giroari lotu behar zitzaion –Vigon, Valladoliden eta Bartzelonan greba gatazkatsuak izan ziren garai beretsuan–.

Tentsio politikoak gorantz egin zuen azken bi urteetan Estatu osoan. 1933an Casas Viejaseko sarraskia –18 hildako– langileen kontrako errepresio basatiaren sinbolo bihurtu zen, eta 1934ko urriko iraultzaren ondorengo zapalkuntza ere ez zen nolanahikoa izan. Gasteizen insurrekzio hura “oso eskasa” izan zela irakur daiteke hainbat historia liburutan. Baina orduan, nola ulertu liskarrek iraun bitartean ogia hiriko toki bakarrean baino ezin erostea? Zergatik itxi zituzten UGT eta ELA-STVren lokalak? Guztira 37 lagun atxilotu zituzten hiriburuan, zenbait kasutan lehergai-luak egitea egotzita.



Ondoko orrialdeko eskuineko irudian, poliziaren kontrolak Gasteizen, altxamenduaren lehen egun nahasietan. Goian, ezker-eskuin: Maiatzaren Leheneko manifestazioa Bigarren Errepublika garaian eta preso errepublikarrak Gasteizko espetxean; 1936ko uztailan preso kopurua laukoiztu egin zen egun gutxiaren buruan.

Askorentzat 1934ko errepresioa bi urte geroago gerran etorriko zenaren entsegu moduko bat izan zen. Militarrek aspaldi erabakita zuten nola konpondu auzi soziala: Arrifeko moroekin egin bezala. Hala, konspirazioak biderkatu egin ziren 1936ko uda iritsi ahala, erreke-teen maniobrak eta arma-kontrabandoa areagotu.

Álava Republicana egunkarian behin baino gehiagotan salatu zuten egosten ari zena, Gasteizko kuarteleko kapitain mediku batek, Luis Sánchez Capuchinok, eta Flandes errejimenduko komandante Ramon Saletak informazioa filtratzen baitzien. Golpea ematerakoan, Antonio García Lorencés egunkariko zuzendariaren kontra auzi militarra zabaldu zuten filtrazio horiengatik. Baina behin faxismoa gailenduta ez zuten tribunalik behar izan bera hiltzeko, azaroaren 22an pre-sondegitik atera eta fusilatu egin zuten.

Arabako agintari militar Camilo Alonso Vega jenerala leporaino zegoen sartuta altxamendua antolatzen, inguru horretako kazike handiena zen Jose Luis Oriol tradizionalistarekin eskuz esku. Hala ere, azken unera arte duda asko izan zituzten goarnizioek bat egingo ote zuten, zenbait errejimendutan, artilleriakoa kasu, CNTko soldadu asturiar ugari baitzegoen. Eguna eta ordua iritsita, beti bezala, goikoak pokerrean jokatzeko ari ziren behekoen bizitzekin.

Altamendua versus greba orokorra

Altamendua egoera oso desberdinak sortu zituen Hego Euskal Herrian. Nafarroa Estatuko matxinatuen epizentro nagusi bilakatu zen milaka erreketek Iruñeko Gazteluko Plaza hartu zuten une beretik. Bizkaian militarrek errepublikaren alde egin zuten argi eta garbi. Donostian, Loiolako kuartelean zeudenak ez



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

www.eskularenetxea.com

Eskularen Etxea

Elkano kalea, 5 · Donostia · 943 420 205

27zapata
Astoak aspaldi jan zun kontzientzia,
berdia zalako

Imanol Epelderen bloga www.argia.eus/blogak/imanol-epelde/



Txirrindularia
bokazioz, korrikalaria
afizioz, irakaslea
ofizioz. Literatura,
hezkuntza eta
osasuna jakingai.



PRENTSA ARABARRAK ZER EGIN ZUEN?

Prentsaren bilakaera 1936ko altxamen-
duak Gasteizen izandako gorabeheren isla
izan zen; errotatiba guztiak gelditu egin
ziren lehen egunetan. *Álava Republicana* ez
zen kalera irten uztailaren 18aren ondoren
eta bere zuzendaria fusilatuta egin zuten
hilabete batzuk geroago. *El Pensamien-
to Alavés* Jose Luis Oriol karlistaren esku
zegoen, uztailaren 22an berragertu zen
mugimendu faxistaren bozgarailu lanak
eginez. *La Libertad* egunkari liberalak hain-
bat hilabetez iraun zuen, eta harrigarri-
ro, altxamendua izan eta egun batzuetara
oraindik Errepublikaren eta demokrazia-
ren aldeko testuak publikatu zituen. Iru-
dian, *El Pensamiento Alavés*en egoitza.



atzera ez aurrera ibili ziren hasieran. Ez-
kertiarrek, aldiz, asalto-guardien egoitza
okupatu eta armak eskuratu ondoren
greba orokorra deitu zuten uztailaren
18an bertan. Sekuentzia hori erabakiga-
rria izan zen ondoren Gipuzkoako hiri-
buruaren defentsa antolatzeko: dela La-
rramendi kaleko barrikadaz, dela Maria
Cristina hotela erasotzerakoan, gizon eta
emakume milizianoek kuraia izugarria
erakutsi zuten.

Gasteizen alderantziz gertatu zen, mi-
litarrek hartu zuten aurre. Altxamen-
duaren egunean Dato kalea zurrumurru
bat zen. Karlistak biltzen ziren Arabar
Anaitasunaren egoitzan istiluren bat
edo beste gertatu zen eta Navarro Vives
orduko gobernadore zibilaria lokala ixte-

ko eskatu zioten errepublikarrek, baita
armak emateko ere. Guardia zibilen ko-
mandantea bera ere horretarako lagun-
tzeko prest azaldu zen. Florida parkean
ehunka lagun bildu ziren “borroka egin
nahi dugu, faxistei bidea itxi, gora erre-
publika!” oihukatuz.

Jose Luis Lonbana abokatu eta Eusko
Gaztediko kideak Gasteizen gertatuta-
koaren testigantza utzi zion Jose Migel
Barandiarani, Iparraldera ihes egin zue-
nean. Bere esanetan 37.000 fusil lortze-
ko zorian izan ziren arratsalde hartan:
“Esan ziguten Gobernu Zibilean sarjentu
bat azaldu zela artilleria parkeko giltzak
eskuan zituela”. Baina gobernadoreak ez
zuen ezer egin; kargua utzi eta Bilbora
ospa egiteko baimena lortu zuen milita-

rrengandik, bere jarrera otzanaren sari
gisa agian. Ordu gutxira militarrek “ge-
rra egoera” aldarrikatu zuten.

Hortik aurrera hasi ziren lehen atxi-
loketak, eta hainbat lokal itxi zituzten,
tartean Eusko Gaztedirena, UGTrena eta
baita Zirkulu Errepublikarra ere; azke-
neko honen arbelean oraindik irakur
zitekeen uztailaren 19rako legalitatea-
ren alde deituriko manifestazioa. Ez zen
sekula egin.

Uztailak 20, astelehenarekin greba
orokorra. Egunkarietako errotatibak
itxita, Ajuriaren fabrika langilerik ape-
nas, esnerik eta ogirik ez, eta saltoki gu-
txi irekita. Panorama horrek eta gasteiz-
tarren hoztasunak, urduri jarri zituen
altxaturiko agintariak. Desinformazio

eta mehatxu kanpaina bat jarri zuten abian berehala. *El Pensamiento Alavés* egunkari erreakzionarioak ohar faltsua kaleratu zuen UGT eta CNTren izenean herritarrei lanera itzultzeko eskatuz; gezurrezko paskinak ere azaldu ziren kalean helburu berarekin. Hala ere grebak beste hiru egunez iraun zuen gutxienez.

Uztailaren 23an gobernadore berriak bandoa zabaltu zuen, gogoraraziz lanera itzultzen ez ziren langileei kontratua etengo zitzaiela: “Nagusiek hurrengo 12 ordutan zerrenda helaraziko didate euren industria, tailer eta obretan despedituak izan diren langileen izenekin”.

Ordurako makina bat lagun Bizkaia eta Gipuzkoa aldera igarota zegoen orde, frontea marraztuta, erretagoardia-ko munstro errepresiboa martxan zen. Lehen fusilatua, hain justu, hilaren 20an lanera joan ez zen okin grebalari bat izan omen zen.

1936-1976-2016

Hasierako jarrera zalantziatik zerrenda beltz, garbiketa eta fusil kolpez uxatu zituzten faxistek. Gasteizko kartzelan preso kopurua laukoiztu egin zen egun gutxitan. Uztailaren 25ean, Santiago

» Uztailaren 23an gobernadore berriak bandoa zabaltu zuen, gogoraraziz lanera itzultzen ez ziren langileei kontratua etengo zitzaiela. Lehen fusilatua, hain justu, lanera joan ez zen okin grebalari bat izan omen zen


eguna, falangisten kuartelean hainbat emakumeri ilea moztu eta akain-olioa edanarazi zieten.

Fusilatze masiboak abuztuan hasi ziren, “jendearen gogoa” epelegia zelako. Agintariak abisua emana zuten: “Araba osoan eta Gasteizen bereziki”, inor ausartzen bazen “tontakeria txikiena” egitera, euren esku zeuden bahituak fusilatuko zituzten derrenpentean. Abuztuaren 14an Gorbeian atxilotutako bost mendigoizale

hil zituzten eta hurrengo asteetan fusilatzeak ugaritu egin ziren, batez ere Millan Astray mugimenduaren propaganda arduradunak hiria bisitatuz geroztik.

Columba Fernández anarkista ere egun horietan hil zuten, Foru kalean zegoen emakumeentzako espetxetik atera ondoren –hamarnaka emakume pilatu eta jazarri zituzten hainbat hila-betez bertan–. Fernández ezaguna zen Gasteizko langile mugimenduan lehen lerroan borrokatu izanagatik, eta ez zioten halakorik barkatu. Diputazioko presidente Teodoro Olartek eta Gasteizko alkate Teodoro González de Zaratek ere patu bera izan zuten, Arabako beste 300 lagun inguruk bezala.

“Badirudi antipatiaren izotza hausten hasi dela langileen artean”, zioen *El Pensamiento Alavés*ek pozarren uda odoltsu haren amaieran. Ez zuten sekula pentsatuko 40 urte geroago asanblearismoa inoiz baino indartsuago egongo zela Gasteizko auzo berrietan, eta haien oinordekoek berriz ere langileen odollez tindatuko zituztela hiriko espaloiak 1976ko martxoaren 3an. Gasteiz lasaiak azala zuri baina zainak gorri dituenaren seinale. ■



Kalean da udako

aizu!

- Euskal Herrian bazterrik bazter: udan etxean ez geratzeko bost proposamen
- Sophie Stephenson, arin-arin
- Kalea, antzerkiaren plaza

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

Amy Goodman, Democracy Now!

“BOTEREARENTZAT BAINO, BOTEREAZ ARIKO DIREN HEDABIDEAK BEHAR DITUGU”

Hogei urte bete berri ditu *Democracy Now!* telebista albistegiak. Irrati saio moduan hasi zen, 1996ko AEBetako hauteskunde kanpaina, eta aurren, beste kanpaina baten erdian gaude, 20 urte horiek laburbiltzen dituen liburua argitaratu berri dute. Amy Goodman aurkezle eta editorearekin izan gara, bere saioaz, hedabideen panoramaz eta hauteskunde kanpainaz mintzatzen.



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: DEMOCRACY NOW!

Zuen saioaren izenak berak badirudi jendartean onartua dagoen ustea zalantzan jartzen duela. Ez ote dago demokraziarik AEBetan?

Herri ekimeneko albistegia gara eta, besteak beste, mugimendu demokratiakoak dira gure arreta guneetakoak. Bada joera bat, atzerriko kontuez jardutean, “demokraziaren aldeko” mugimenduez mintzatzeko. Nire ustez, izendapen bera erabil daiteke AEBen baitako ekimen askori buruz hitz egitean. Demokrazia egunero lantzen den kontua da, egunero bere alde borrokatzen duzu baina inoiz ez duzu guztiz erdiesten.

Zein da hedabide handien rola? Kazetari-tza zintzoa egiten dute?

Komunikabide independenteen inportantea zera da: gerrari buruz mintzo garelarik ez dugu armagintzaren babesik, klima aldaketaz mintzo garelarik ez

dugu atzean ikatz eta petrolioaren industriarik, osasun estalduraz mintzo garelarik ez dugu atzean aseguru-etxeen iritzi-ildorik. Hedabide korporatiboek bai, eztabaidatzen dute gerraz eta bakeaz eta, halako batean diote: “jarraituko dugu honetaz hizketan, baina lehenago tarte bat egingo diogu Boeing-i” edo beste armagile bati. Guk ez ditugu interes komertzial horiek zerbitzatzen, demokrazia baizik.

***Democracy Now!* ez da soilik bestelako albisteak, albisteen beste ikuspegi bat ere bada. Zuk esan duzu: “hedabide handiek inoiz esaten ez duten zerbait esatekotan, denbora behar duzu”. Interesgarria da gogoeta hori, egungo mikroformatoek eta azalderiek ez dute balio ikuspegi “ezberdina” azaldu behar duzunean?**

Batzuetan jende gehienak entzun ere egin ez duen istorio bat kontatzen ari

gara eta askotan deseraiki behar izaten dugu hedabide handiek kontatu dutena. Lan handia da hori, askotan jendeak sinesten duena guztiz oinarririk gabea izan ohi delako.

“Ahantzitako komunitateak eta kontatu gabeko berriak” jorratzen dituzuela diozue liburuan. Zergatik ez dira interesgarriak komunikabide handientzat?

Interes komertzialak zerbitzatzen dituztelako. Denbora luzez komunitate batzuk polizia bortizkeriaz kezkatuta bizi izan dira, eta bat-batean gaiak salto egiten du hedabide horietara, kontu horiengatik protesta jendetsuak izan direlako, Michael Brownen hilketagatik kasu, eta honen inguruan hazi diren *Black Lives Matter* bezalako ekimenak daude. Occupy mugimenduan, adibidez, milaka lagun biltzen hasi ziren Zucotti parkean eta hedabide korporatiboek ez





zioten gaiari jarraipenik egiten. Baina heldu zen unea, mugimendua hain handi bihurtuta, jarraitu behar zutena.

AEBek ideologia aldetik dualtasun moduko agertzen dute munduaren aurrean: alde batetik, XX. mendeko potentzia interbentzionista eta antikomunismoaren aitzindaria; bestetik, ezkerreko mugimendu eta pentsalari aitzindari askoren sorgunea. Antikomunismoak norainoko indarra du oraindik eta noraino galtzen ditu egun ezkerreko ekimenak AEBetan?

Hauteskunde hauetan muga asko apurtu dira, Bernie Sandersek, demokrata sozialista batek indar handia izan dezakeelako, hain zuzen ere sozialista delako. Jendea ari da oraino gauzatu ezinak ziruditen proposamenak entzuten. Nelson Mandelak esan zuen “beti dirudi ezinezkoa dela, gauzatzen den arte”.

Orain arte jendeak esango zuen: “Sozialista bat? Bai zera! Ez goaz inora horrekin”. Bat-batean sozialista batek aurre egin dio hautagaitza nagusiari. Jendeak ez dio etiketari erreparatu, bere ikuspegi baizik, eta ikuspegi sozialistak dira.

Hauteskunde lehia honetan badirudi lehen aipatutako dualtasuna inoiz baino agerikoagoa dela: alde batetik eskumako populista bat, arazo guztiak gutxiengoei leporatzen dizkien atsekabetutako jendearen botoak hartzen; eta bestetik, ezkerreko proposamenak dituen sozialista bat... Eta gero Hillary Clinton dago. Itxurazko polarizazio honek azken honen hautagaitzari egin dio onura?

Bai. Ez zion primarioetan onurarik ekarri, berak ez zuelako espero Sanders hain indartsu egotea, milaka lagun bere mitinetara joaten... Inork ez zuen espero. Sandersek etengabe azpimarratu du

“Hedabideak izan daitezke bakearen aldeko indarrik handienak, baina gerrarako arma izaten dira maizegi”

Clinton Wall Streeten preso dagoela, eta hark ez zuen erantzunik emateko beharrik izango Sandersek hain babes handia lortu ez balu... Baina lortu du eta, are orain, alderdi barruko garaipena lortu arren, Clintonek ezin die Sandersen zaleei aurre egin, behar dituelako, eta beraiek indarra hartuta daude. Clinton ez doa errepublikar boto-emaleen bila, bere erronka botorik emango ez dute-

nak konbentzitzea izango da. Sandersen inguruan gazteak botereku dira, emakume gazteak batez ere. Clinton lehenengo emakume presidentea izan daitekeen arren, ez ditu emakumeak erakarri, Sandersek bai ordea. Clintonek Sandersen ikuspegietako batzuk bere egin beharko ditu sektore horiek bereganatuko baiditu. Noraino hurbilduko den? Gizarte mugimenduen esku dago hori.

Hedabideek, baina, Sandersi arreta gutxi eman diotela salatu duzu.

Hedabideek Donald Trump babestu dute, eta telebista bitarteko huts bihurtu da bere diskurtsoa AEBetako etxe guztietara hedatzeko. Magnatea da bera, *TV celebrity* bat, bere arrazakeria, xenofobia eta islamofobia ikaragarriak dira, oraino hauteskunde lehia batean ikusi gabeak. Nork esango zuen Ku Klux Klan eztabaidagai izango zenik 2016ko kanpainan? Pacifica Radiotik nator ni, duela 67 urte sortutako irrati sarea, bost irrati AEBetan, laugarrena KPFT Houston zen. 1970ean aineratu eta berehala KKK-ek leherrarazi zuen bonba batez. Berririo aineratu eta berririo eraso egin zioten. Klanak ez du nahi jendeak bere kabuz hitz egiterik. Zergatik? Norbait entzuten duzularik bere esperientziatik mintzatzen, izan palestinar ama bat edo afganistandarra edo irakiarra, mugak eta harresiak apurtzen dira. Esaten duzu: hara, nire ama gogorarazten dit, edo aita edo osaba. Gorroto taldeentzat hori mehatxua da, hori da hedabideen boterea: izan daitezke munduan bakearen aldeko indarrik handiena baina, aldez, gerrarako arma izaten dira maizegi. Horregatik berreskuratu behar ditugu hedabideak.

Hauteskunde inkesten aurka zaude. Zergatik?

Oso oker daudelako, ez dute asmatzen, hedabideak denbora guztian horien inguruan ari dira eta, hauteskundeen ondoren zertan okertu diren ematen dute denbora. Zorakeria dirudi, baina inkestek onespina sortzen dute. Horren atzean dago gakoa, diruaren eragin ustela politikan. AEBetako hauteskunde sistemak horrela funtzionatzan du eta telebista kateek ez dute hori arazo moduan planteatzen, eurak direlako hautagaiek kanpainetarako biltzen duten diruaren jasotzaileak. Horregatik behar dira komunikabide independenteak.



KAZETARI DESEROSOA BOTEREARENTZAT

Manhattango Chelsea auzoan, 25. kaleko etxeorratz bateko 11. solairuaren erdia hartzen du *Democracy Now!*-ren egoitzak. Erdian telebista estudioa dago eta inguru osoa erredakzioa da, buelta osoa hartzen duen liburu apalategi hesi batek banatuta. Goizetik artaga, zuzeneko saioa, bilerak, grabaketak... Tarte bat eginda, bertan hartu gaitu Amy Goodmanek. Berak eta berarekin batera saioa aurkeztu ohi duen Juan Gonzalezek estatubatuar kazetaritzaren aitortza ugari jaso dituzte. Bill Clintonen esane-tan "etsai, oldarkor eta lotsagabea" den kazetari ezerosoa da Goodman. Noam Chomskyren arabera, aldiz, "kazetaritza gogor eta zehatza eginez, publikoa informatzeko berebiziko ekarpena" egiten du.

Zer da *Democracy Now*?

Ez da telebista katea, astelehenetik ostiralera, AEBetako eta munduko albisteak ikuspegi independente batekin aurkeztu dituen ordubetako telebista saio in-

formatiboa baizik. *Democracy Now!* zuzenean igortzen dute goizero New Yorketik, hango 8:00etan, eta hedapen handia du, AEBetako kable eta satelite bidezko telebista kate eta irrati publikoetatik hasi eta planeta osoko irrati libre eta komunitarioetaraino, guztira 1.400 hedabidek banatzen baitute mundu osoan, zuzenean edo diferituan.

Gaztelaniazko bertsioa ere badu saioak, lantaldeko kideek egunean egokitua, eta testu guztiak transkribatu egiten dituzte egun batetik bestera. Eguneroko ordubete hori banaketa librekoa da, baita www.democracynow.org webgunean eta Youtuberaren bidez hedatzen diren eduki gehigarri guztiak ere.

Publiziterik gabeko saioa da *Democracy Now!*, ikus-entzule harpidedunen ekarpenekin finantzatzan da eta horrek independentzia editoriala ematen badio ere, buruhauste ugari ekartzen dizkie proiektua finantzatzeko, sustapen ugari egin behar izaten baitute diru emaileak lortzeko.

Super-ordezkaririk egon ez balitz Sandersek Clinton garaitzeko aukerak izango zituzkeen?

Bai, hasieratik Hillaryk bere alde dituen super-ordezkarien kopurua erabili baitu, makila bailitzan, lehiakideak uxatzeko. Harrigarria da, baina jende gehienak ez daki nola funtzionatzen duen Alderdi Demokrataren baitako superordezkarien sistemak. Bernie Sandersek primarioak eta caucusak irabazi arren zergatik ditu ordezkari

ri gehiago Clintonek? Bada, duela hamarkada batzuk konturatu zirelako ez zutela nahi hautagaia jendeak bozkaturta aukeratzetik, jendeak benetan nahi duen hautagaia ateratzeko arriskua baitago eta ez alderdiaren establismentak nahi duena. Beraz, sistema bat eratu zuten, non gobernadoreak, senatariak eta alderdiaren establisment horretako kideak automatikoki superordezkari moduan doazen biltzar nazionalera.

Lehengoa Alderdi Demokratari buruzko *Listen, Liberal* liburuaren egile Thomas Frank-ek zure saioan zioenez, alderdiak 70eko urteetan erabaki zuen ez zuela izan nahi langileen alderdia, 90etan dagoeneko Wall Streeten inguruan zebilen bueltaka eta egun erabat lotua dago. Baina egia da, bestalde, inoiz ez dela ezkerreko hautagai bat hain urrun heldu. Gerta daiteke bihar-etzi alderdiak sozial demokraziarantz egitea?

Edozer gerta daiteke, gizarte mugimenduek nahi dutenaren arabera. Boterea dute eta sentitu behar dute hori, eskaerak egin. Frederick Douglass abolizionista handiak esan zuenez, “botereak ez du ezer ematen tartean aldarrikapenik ez badago, ez du inoiz egin eta ez du inoiz egingo”.

Beste batzuek proposatzen dute ezkererako aldaketa hori Alderdi Demokratatik at egin behar dela, Jill Steinek kasu.

Bera medikua da, Alderdi Berdearen hautagai moduan aurkeztzen da. Hirugarren alderdi gisa aurkeztzen da, Alderdi Libertarioa bezala, baina estatu guztietan aurkeztekotan diru kopuru izugarria beharko luke hirugarren batek. Alderdi biko sistema da AEB, *de facto*.

AEBen kanpo politikari dagokionez, Trumpek gogortasun politika proposatzen du baina Hillary askoren iritziz Obama baino interbentzionistagoa da. Zeintzuk izango dira nazioartean baten edo bestearen garaipenaren ondorioak?

Hillary Clinton *belatz* neoliberal da: Irakeko gerraren alde eman zuen botoa, Wall Street-i oso lotua dago, bere senarraren politikak babestu ditu; delituen aurkako 1994ko legea babestu zuen, beltzen, latinoen eta txiroen kartzelaratze masiboak ekarri zituen... Tradizio horretatik dator. Ezin da aurretik jakin Trumpek zer egingo duen, iruzur eginez, langileen bizkar dirua egin duen mailegu-emailea da. Hillaryk zer egin ondo aurreikus daiteke, sakonki interbentzionista eta gerraren aldekoa da. Hori esanda, ez dut esango hori izango denik, presidente bihurtuz gero, jarraituko duen bidea, gizarte mugimenduen indarrak baldintzatu dezakeelako.

Obamaren gobernuak interbentzionismoa apaldu du?

Inondik inora ere ez. Obama gerrarik luzeenetako batean izan da presidente,

**“Hillary Clinton
belatz neoliberal da”**

**“Gerragatik edo
klimagatik kezkatzen
direnak ez dira
gutxiengoa, hedabide
korporatiboek
isilarazitako gehiengoa
baino”**

**“Historia egiten
duten mugimenduen
berri emango duten
hedabideak behar
ditugu”**

Afganistangoan. Obama mugimenduek hautatu zuten: arrazakeriaren aurkako mugimenduek, gerraren aurkakoe, etorkinen eskubideen aldekoek, ingurugiroaren aldekoek, gay eta lesbianen aldekoek... Aukeratu zutenean lasaitu ederra hartu zuen munduak, ate bat zabaldu zen hor, baina atea bortizki itxi daiteke atzera. Obama 2008an aukeratu zutenean, atzerakada arrazista gertatu zen, Trumpek babestutako *Birther* mugimendua sortu zen –Obama ez dela AEBetan jaioa dioena– eta eraso horiek zirela eta, mugimenduek Obama ez kaltetzearen utzi egin zioten axola zitzaizkien arazoengatik bere politikak kritikatzeari.

Ezinezkoa lortua zuten, afroamerikar bat presidente jartzea. Obamak Guantanamo itxiko zuela iragarri zuen, baina zazpi urte geroago ez du oraindik itxi. Irakeko gerraren aurka zegoela esan zuen, baina gerra hedatu egin da, droneen gerra bezalaxe Yemenen, Somali, Pakistanen, Afganistanen, Libian... Salatarien jazarpen gehien izan dira bera presidente denetik. Etorkinen aldeko mugimenduek babesa eman zioten hasieran, Etxe Zuriaren barruan hasi

ziren lanean, baina mugimendu bera izan da gerora Obama *deporter-in-chief* (deportatzaile buru) izendatu duena, historiako beste ezein presidentek baino etorkin gehiago deportatu dituelako. Mugimenduek zuzia eman zioten eta atzera egin zuten, baina hori errakuntza da, pertsona bakar batek ezin baitu Etxe Zurian egon eta bertan dabiltzaneren eskariei eutsi, ezin baditu kanpoan daudenak seinatu eta esan “hori egiten badut Bastilla hartuko dute”. Kanpoan jenderik ez badago, arazo handia du.

Behintzat badirudi Kuba salbuespena dela hor, jarrera berrien erakusgarri.

Legatua utzi nahi du gerorako, era berriak dituela erakutsi, eta Kuban ahalegina egin du harremanak normalizatzeko, baina blokeoa oraindik hor dago eta hori du hurrengo erronka. AEBek bombardatutako Hiroshima bisitatu duen lehendabiziko amerikar presidentea da, eta armagabetze nuklearraren alde egin zuen berba bertan, baina bere agintaldian 3.000 milioi dolar bideratu dira arma nuklearren garapenerako.

TTIP eta TPP merkataritza itunen berri du jendeak hemen, ala European bezala hedabideek ez diote ia arretarik ematen?

Hedabide korporatiboak lerrokatuta daude korporazioekin, horregatik ez dute azaltzen, ez dute gaia jorratzen edo korporazioen mesedetan dauden azalpen batzuk ematen dituzte. Hillary Clinton bezala, Obama Wall Street-ekin lerrokatuta dago, erabat babesten dute jendea boteregabekten duen, ingurugiroa mehatxatzen duen TPP. Hedabideei dagokie kontu hauek azaltzea. Gerragatik, klima aldaketagatik kezkatzen direnak ez dira gutxiengoa, ezta gehiengo isila ere, hedabide korporatiboek isilarazitako gehiengoa baino, horregatik berreskuratu behar ditugu hedabideak. Aro digitalean bizi gara, baina jasotzen dugun guztia zarata da, distortsioak, gezurrak. Botereaz jarduten duten hedabideak behar ditugu, ez boterearentzat dihardutenak. Estatuaren aldekoak baino, laugarren estatua diren hedabideak behar ditugu, interferentziak sortzen dituzten eta historia egiten duten mugimenduen berri emango dutenak. ■

» ARGIA.EUS GUNEAN ELKARRIZKETAREN BERTSIO LUZEA, GALDERA-ERANTZUN GEHIAGOREKIN

Sulem Estrada, Mexikoko irakasle eta sindikalista

“IRAKASLEAK BETI IZAN DIRA INDAR SOZIAL GARRANTZITSUA MEXIKON”

Ayotzinapako landa-eskolako 43 ikasle desagertu ziren 2014an, poliziarekin izandako liskar bortitzen ostean. Kapitulu berri bat bizi dute orain Mexikon: hezkuntza publikoaren alde Oaxaca eta Chiapasen egindako mobilizazioei, odolarekin erantzun die Gobernuak. 12 hildako guztira. Sulem Estrada Mexiko DF-ko irakasle, sindikalista eta militantearengana jo dugu.



Dornaku Lanz Solbes
dornaku@riseup.net

Koka gaitzazu testuinguruan. Zer gertatzen ari da Mexikon?

Mobilizazioak sortu direla, ez bakarrik irakasleen aldetik, guraso eta herri osoak babestuta, hezkuntza pribatizatu eta irakasleen eskubideak urratu nahi dituen erreformagatik. Estatuak gogor erreprimitu ditu manifestazioak; atxilotuak egon dira, baita 12 hildako ere.

Irakasleak beti izan dira indar sozial garrantzitsua herrialde honetan. Mugimendu ugariaren protagonista izan dira, Mexikoko Iraultzarena barne, mediku eta abokatuekin batera. Hezkuntza erreformak egiturazko beste hainbat aldatzarekin egiten du bat. Osasun eta lan arloetan, energia sektorean (Pemex-en pribatizazioa lekuko)... ere ari dira muturra sartzen, eta horregatik irakasleak ez dira borrokan ari diren bakarrak. Azken erreforma neoliberal honen kontra-koak dira mobilizazioak.

Aurrekariak izan ditugu. 2013an irakasleek kanpaldi erraldoia antolatu zuten Mexiko Hiri erdiko plaza batean, eta Gobernuak bortizki hustu zuen plaza. Ondoren, Ayotzinapako 43 “normalisten” desagertzea izan genuen. Eskola “normalak” irakasle ikasketak egiteko eskolak dira eta landa eremukoetan formatzen dira gero Mexikoko leku txiroenetara joango diren irakasleak. Horren guztiaren aurretik, ikasle eta gazte mugimendu garrantzitsu baten sorre-

ra izan genuen hiriburuan: Yo soy 132 mugimendua, mende oso batez Mexiko gobernatu duen PRI alderdi autoritarioaren kontra.

Bada ezberdintasunik hiri eta landa eremu- muetako mobilizazioen artean?

Landa eta hiriaren arteko banaketa argia da Mexikon. Hegoaldeko estatuetan lehen sektorea da nagusi, eta iparraldean industria. Chiapas, Guerrero, Michoacán eta Oaxaca dira estatu txiroenak, eta nortasun indigena, jatorrizko kulturaren presentzia, askoz handiagoa da horietan. Hegoaldean, komunitateak pisu handiagoa du, elkarrekin aritzeko joera dute.

Azken hildakoen aurrean, zer dio Gobernuak?

Mexikoko Gobernuak eskuak garbitu ditu, poliziaren eta herritarren arteko istiluak izan zirela eta manifestariak erarmak zituztela argudiatuz. Gobernuak dio poliziak erasoen aurrean erantzun besterik ez zuela egin. Eta gaineratu du hildakoak ez direla irakasleak, honek guztiak ez duela hezkuntza erreformarekin zerikusirik. Jakina, gezurra da erabat, eta ez da lehen aldia Estatu-ko indar polizialek haien bortxa guztiarekin herriaren kontra egiten dutena. Giza eskubideen urraketa sarri salatu dira, maila nazional eta internazionalen.

Eta orain arte atxilotutakoen egoera zein da?

Hamarnaka preso egon dira, atxilotzen dituzte eta ondoren azkar uzten dituzte libre, baina azpimarratzekoa da mugimendu sindikaleko buruzagiak atxilotu dituztela. Borrokatzen saiatzen den oro erreprimitu, kartzelaratu edo hil egiten dute; ikaragarria da.

Zer paper ari dira jokatzeko irakasleak?

Gazte mugimendua, batez ere unibertsitateetan kontzentratzen dena, oso mugimendu aktiboa da. Aipatu dudan moduan, Yo soy 132 mugimendua ikasle eta gazteek gidaturikoa izan zen, eta Ayotzinapako 43 ikasleena pasa zenean ere, milaka gazte atera ziren karrikara, 43ak bizirik agertu zitezen, bai eta Gobernuaren kontrako aldarriak oihukatzerara ere. Duela gutxi, UNAM unibertsitate publikoan, Estatu-ko campus handiena den horretan, asanblada erraldoia antolatu zuten, irakasleen mugimendua nola lagundu erabakitzeko.

Eta gurasoek zein jarrera dute?

Gurasoak ere guztiz inplikatu dira irakasleen borrokaekin, ulertzen dutelako irakasleen lan baldintzez gain, hezkuntza publikoaren aldeko borroka dela. Michoacán-en bertan, 12-15 urte arteko irakasleak atera dira manifestatzen, guraso eta irakasleekin batera.



CIUDADANIA-EXPRESS.COM



YOUTUBE

Ezkerrean, mobilizazioak Oaxacan. Eskuinean, Sulem Estrada: "Mexikoko Gobernuak eskuak garbitu ditu, poliziaren eta herritarren arteko istiluak izan zirela eta manifestariak ere armak zituztela argudiatuz. Gezurra da erabat, eta ez da lehen aldia Estatuako indar polizialek haien bortxa guztiarekin herriaren kontra egiten dutena".

Hedabideen aldetik, zein da mezu nagusia?

Irakasleen satanizazio izugarria dago hedabideetan. Irratian, telebistan... Leku denetan etengabeko desprestigioa baino ez da ikusten. Irakasleak banda-loak eta gaizkileak direla diote, arazoak baino sortzen ez dituzten alfer taldea direla.

Nola ikusten duzu pribatizazioen kontra borroka honen etorkizuna?

Hau guztia aurrera eramateko ezinbestekoa izango da nazio mailan arlo guztiak bateratuko dituen estrategia edo egitura bat osatzea, herriaren exijentzia guztiak behar bezala betetzea nahi badugu. Gauza da, orain Gobernuak eztabaida desbideratu nahi duela elkarrikitasun-mahai baten bidez, irakasleak engainatzeko asmoz, gatazka luzatu eta mugimendua desgastatzeko. Irakasleek 20 egun baino gehiago daramatzate greban eta mobilizazio oso indartsuak antolatuz, gatazka oso gogorak bizi dituzte egunero. Gobernuak, eztabaidarako mahai horren bidez, altxamendu hau isilarazi besterik ez du nahi. Eta guk uste dugu borroka indartzea dela bidea, beste arlo eta sektoreekin koordinatuz.

Mexiko gerran dagoela esango zenuke?

Estatuaren militarizazioa, batez ere Felipe Calderónen Gobernu garaian eman

zena [2006-2012], itxuraz narkoaren kontra antolatu zen, baina errealitatean borrokatzen ari den herri xehea ari dira hiltzen. Militanteak, emakumeak, kazetariak... dira ustezko narkoaren kontrako gerra horretan gehien erasotzen ari direnak. Gobernuak bortizkeriaren naturalizazioa eta normalizazioa bilatzen du, eta ondorioz hemen ez da hainbeste ikusten gerra moduan, baina ezin da ukatu oso bortitza izaten ari denik. Hamarnaka kazetari dira dagoeneko Gobernuaren ustelkeria salatzeagatik erail dituztenak.

Michoacán goi-autodefentsa taldeak eza-gunak egin dira azken urteetan. Narkoaren eta Gobernuaren bortizkeria sistematikoaren aurrean, zein puntutan dago autodefentsa armatua Mexikon?

Hainbat lekutan, herriak armak ditu eta taldetan antolatu dira haien autodefentsarako, baina Estatuak gogor erasotzen ditu. Esate baterako, autodefentsa taldeetako bi zuzendari nagusi atxilotu ditu, Miguelez, preso jarraitzen duena, eta Nestora Salgado, duela gutxi libre utzi dutena, bere askatasunaren aldeko kanpainaren ondorioz. Aldi berean, narkotik eratorritako egoera ere oso bortitza da eta ez gaude ziur autodefentsa taldeez gain bestelako talde armaturik dagoenik, baina oso posible da egotea.

"Hezkuntza erreforma pribatizatzaileak egiturazko beste hainbat aldagetarekin egiten du bat. Osasun eta lan arloetan, energia sektorean... ere ari dira muturra sartzen"

Gaineratu nahiko zenukeenik?

Nazioartetik elkartasun handia dugu eta sumatzen dugu kezka zabala dagoela, herrialdean gertatzen ari denaren inguruan. Bideoak, argazkiak... jaso ditugu leku askotatik, eta Argentinan edo Madrilan egindako mobilizazioen berri izan dugu. Era berean, ikusten dugu ez gaitasun mugitzen ari den herri bakarra, Frantzia ere altxamendu handiak izaten ari dira eta mobilizazio horiekin guztiarekin bat egin nahi dugu, ulertzen dugulako bizi ditugun erasoak ez direla guri bakarrik egindakoak, mexikar moduan, baizik eta nazioartean ematen ari diren erasoak. Azken finean, hezkuntza erreforma hau adibidez ez dira soilik hemen aplikatzen ari, Txilen, Argentinan eta beste hainbat herrialdetan ere gauza bera egiten ari dira. ■

HERRIZ HERRI ZABALDUZ DOA GIPUZKOA ZUTIK

Maiatzaren 29an errausketaren kontrako mugimenduak Donostian deitutako giza katearen ostean, Gipuzkoa Plazan kanpaldia hasi zuen Gipuzkoa Zutik. Erraustegia sinbolo hartuta, bizitza eredua bera birplanteatzea proposatu zuten, gaiak uztartuta jorratuz. Ekainaren 23an asanbladan erabaki zen fasez aldatzea: Donostiako kanpaldi formatua utzi eta herri bakoitzak bere Zutik asanblada eta dinamikak sortzea. Ordurako Debagoiena Zutik, Oiartzun Zutik, Orereta Zutik... eratuak ziren. Geroztik, 20tik gora herri batzen dira 10 Zutik asanbladetan (batzuk eskualdeka biltzen dira) eta makina bat ekintza egin dituzte. Udan hauspotzen jarraituko dute eta udazkena bero etorriko dela aurreikusi daiteke.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Kalean, asanblada publikoak deitu eta unean-unean bildutako herritarrek hartzea erabakiak, hori izan da Gipuzkoa Zutik oinarrietako bat. Lehen asanbladan arau ere hau adostu zen: "Inork ez du inor behartzen, ez mugatzen". Oinarri zabal baten gainean, autonomiaz funtzionatzea ekarri du horrek. Oinarri horiekin koherentzian, herri bakoitzean asanblada deialdiak sortuz joan dira. Lehen deialdia egin duten herritar gehienak Donostian gorpuztu zen Gipuzkoa Zutik parte hartuak dira, batzuek asanblada pare batean, beste batzuek kanpaldian ere bai. Herri bakoitzak erabakitzen du unean unean zer egin, zer gairi heldu bere herrian, baita bizitza eredua jorratzeko sinbolo bera mantendu (erraustegia) edo besteren bat hautatu.

Herrietako faseak ekarri du Gipuzkoa Zutik biderkatzea parte-hartzean: herri handi (Tolosa) eta bailaratan (Burrundialdea, Debagoiena) 100 lagun ba-

tzen dira asanbladetan. Herri txikiagotan 20-40 kide artean batzen dira. Eta herritar askoz gehiagorengana modu zuzenean iristen da Gipuzkoa Zutik eragina, nork bere herriko kalean topo egiten baitu asanblada eta ekintzekin. Esperientzia aberasten jarraitzea ere ekarri du eta ekarriko du, herri bakoitzean hartzen duen forma aniztasunak.

Oso orokorrean bada ere, herri bateko eta besteko kideekin mintzatu ostean, esatera ausartuko gara asanbladetan gaztetasuna dela nagusi, baina denetan beterano multzoek (40-60 urtekoak) ere parte hartzen dutela. Elkarlan hau oso positibo baloratzen dute batzuek eta besteek. Herri eta bailaretan lehenetik mobilizatu gabeko jendea ere berraratzea lortu dela eta "betiko koadrilaz" gaindiko harremanak sortzen doazela kontatzen dute.

Orriotan, herri bakoitza zertan den, ideia nagusiak biltzen saiatu gara. Aldez

Maskarillak eta koloretako oihala bihurtu dira denen sinbolo, aldaera anitzekin.



aurretik barkamenak euren berri iritsi ez zaigun herri eta bailare, eta beren berri bidaltzeko gonbidapena luzatzen dizuegu: gizartea@argia.eus.

Anoeta Zutik: kanpaldia uztailaren

Uztailaren 2an egin zuten lehen asanblada, eta uztailaren 11rako kanpaldia abiatzea erabaki zuten: "Jendearen nahiaren eta gogoaren arabera izango da, eta ikusiko da zenbat irauten duen" diote.

Orereta Zutik: jaiak helburu

Hastero biltzen da Orereta Zutik. Orain arte, Madalenetan (uztailaren 21ean hasita) egingo dutena prestatzera bideratu dituzte indarrak. Jaietako lehen eguna eta Koadrilen Eguna hautatu dituzte, pankarta eta ekintzak kalera-tzeko. Antzerkia ere lantzen ari dira: Marierrauskiñerekin herrian bisita gidatua egingo dute.

UDAKO DEIALDI OROKORRAK



Ekainaren 29an Bulebarrean egin zen asanbladan erabaki zen udako martxa:

- Bi asanblada orokor egingo dira, hileko azken ostegunetan (uztailaren 28an eta abuztuaren 25ean), Bulebarrean, 19:00etan. Uztailaren 28an 18:00etan ekintza kolektibo bat egingo da, asanbladaren aurretik.
- Irailean Gipuzkoa Zutik asteburu-pasa egingo da (herri guztiak elkartuta).

Lau lantalde martxan jartzea ere erabaki zen:

- Ekintza zuzenen lantaldea: asteazkenetan 18:00etan Bulebarrean biltzen da.
- Diru-iturrien lantaldea: uztailaren 12an 19:00etan Bulebarrean bilduko da. Ekarpina egiteko kontu korrante zenbaki hau zabaldu dute (Laborala) ES52 3035 0075 41 0750057088.
- Iraileko asteburu-pasa antolatze lantaldea: uztailaren 12an 19:00etan Bulebarrean bilduko da.
- Komunikazio lantaldea: parte hartu nahi duenak emaila bidali dezake gipuzkoazutik@gmail.com-era.
- Sistematizazio lantaldea: Gipuzkoa Zutik Donostiako kanpaldi garaia gakoak identifikatu eta publiko jarriko ditu, beste esperientzientzako baliagarri izan daitezkeelakoan. Uztailaren 19an, 17:00etan Easo Plazan batuko da.

Oiartzun Zutik: Auzoz auzo

Ekainaren 20an egin zuen lehen asanblada eta geroztik asteroko erritmoari eutsi dio. Uztailaren 1eko asteburuan kanpaldia egin zuten Altxibarko auzoko San Pedro jaietan. Udan zehar bide honi eustea espero dute, auzoz auzo eramango dutela bizitzaren aldeko aldarria, festak baliatuz. Altxibarko kanpaldian erreka garbitu zuten, ekintza zuzen positiboen bidea irekiz.

Zumaia Zutik: informatzera

Ekain bukaeran ekin zion asanblada biltzeari eta uztailaren 2an egin zuten lehen ekintza, erraustegiak osasunean izango duen eragina salatuz: adin guztietako herritarrek lurtean zerraldo, maskarillak ahoan, erdian erraustegia zutela. Herritarrek erraustegi proiektuaren inguruko alorrez informatzea hartu dute helburu, eta hurrena landuko dituzten gaiak ekonomikoa eta birziklapena dira. Formatu anitzak ari dira aztertzen horretarako: erakusketa, informazio puntu ibiltaria, kalean hitzaldiak antolatzea... abuztu bukaeran kanpaldia egiteko aukera ere esku artean dute.

Buruntzaldea Zutik: ekintzak ardatz

Sei herri biltzen dira bertan (Usurbil, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta, Andoain eta Astigarraga). Asteroko dinamikari eustea erabaki dute, aste batean asanblada eta hurrengoan ekintza txandakatuz. Asanblada aldiro herri batean egitea adostu dute, eta herri horretakoek hartzea berau antolatze lantaldeak. Hurrengo asanblada uztailaren 19an egingo dute Usurbilen, 19:00etan.

GAIA JARRAITZEKO

- Twitter kontua dute: @GipuzkoaZutik @Zarautzenezutik @AzkoitiaZutik @TolosaZutik @DebagoienaZutik @Buruntzazutik.
- Facebooken orria dute: Gipuzkoa Zutik, Tolosa Zutik, Buruntzaldea Zutik, Debagoiena Zutik.
- argia.eus-en: asanblada eta ekintzen deialdi guztiak bateratuta eta eguneratuta dituzu *Gipuzkoa Zutik: deialdiak* albistean. Horrez gain, argia.eus/gipuzkoa-zutik kanalean irakurri ahal izango dituzu herri bakoitzeko aktualitatearen kronikak.
- Informazioa bidaltzeko deia: Asanbladen eta ekintzen deialdiak Gipuzkoa Zutikeko komunikazio lantaldeari bidaltzeko eskatu zuen Gipuzkoa Zutik ekainaren 29ko asanbladak. Hauxe du helbide elektronikoa: gipuzkoazutik@gmail.com. ARGIA ere bidaliz gero, oso gustura zabalduko dugu bere berri: gizartea@argia.eus.

Debagoiena Zutik: irailean asanblada

Kanpaldia egin zuen lehen herria izan zen (kontzentrazioan 400 herritar batuz), artean Gipuzkoa Zutik Donostian zela. Horrela, herrietarako fasea zabalitzen lagundu zuten. Debagoienako zazpi herri batzen dira bertan. Udan herri bakoitzak bere herriko festetan pankartekin presentzia landuko du eta irailaren 3an, larunbata, bilduko da berriz ere Debagoiena Zutik asanblada: Mankomunitate aurrean, 10:00etan.

Tolosa Zutik: ekintzak zehazten

Asteroko erritmoari eutsio dio Tolosak ere. Lehen asanbladatik inguruko herrietako kideak ere bildu dira, horregatik ari dira aztertzen ea Tolosa izena edo Tolosaldea den egokiago, baina beti ere harreman horizontalak oinarri izanda: inguruko herrietan sortu daitezkeen taldeekiko, besteak beste. Ekintzak zehazten ere ari dira.

Azkoiti Zutik: lehen ekintzan atxilotu bat

Ekainaren bukaeran deitu zuten lehen asanblada eta uztailaren 2an Gipuzkoako Batzar irekiak Azkoitian bildu zirenean, elkarretaratze musikatua egin zuten. Atxilotu egin zuen ertzaintzak herritar bat eta uztailaren 19an egingo diote epaiketa azkarra.

Azpeiti Zutik: lehen urratsak

Ostegunero 19:00etan batzen da asanblada herriko plazan. Zer den Azpeiti Zutik eta zein ekintza egingo dituzten zehazten ari dira. Azkoitiko kidearen epaiketan elkarretaratzea egiteko deialdia ere egingo dute.

Zarautzen, Zutik aurreko lanketan

Hainbat bilera egin dituzte herritar talde batek, eta hainbat ekintza egin ere bai: informazio orriak banatu, eta Mallekoian besarkadak eskaini: errausketa bai edo ez, bakoitzak erabaki dezala zer besarkatzen duen. Ekintza hauek Zarautzen ere Zutik izenean sinatu dituzte. Lehen asanblada irekia noiz eta nola deitu, nola azaldu, lantzen ari dira (Zarautz Zutik litzatekeena). ■

Barróngo urtegia

EGUNGO BEHARRETARA EGOKITU GABEKO AZPIEGITURA

Añanako Kuadrillaren ureztatzeko planak eztabaida eragin du Araban. Espainiako Gobernuak eta Arabako Foru Aldundiak bultzaturiko egitasmoak hainbat putzu eraikitzea aurreikusten du; Barróngo urtegia litzateke proiektuaren azpiegitura nagusia. 1999an diseinaturiko egitasmoa izanik, ezbaian dago bideragarritasuna: ur eskariaren eta eskaintzaren artean sekulako aldea egon liteke.



Iker Oñate Aiastui
@Iker_Onate

Añanako Kuadrillako languriek badute ureztatzeko azpiegitura beharrik eta urteak daramatzate putzu eske, baina 2015eko abuztuan Barróngo urtegia eraikitzeko asmoa publiko egin zen arte, ez zuten azpiegitura handirik espero. Are gutxiago, inguruko nekazaritzaren gainbehera ikusita: arestian nekazari askok eman zuen izena Ureztatzeko Taldean, baina egun, horien %8 inguruk besterik ez du jarraitzen laborantzian.

Proiektuaren aldekoen aburuz, nekazaritzaren gainbehera iraultzeko tresna izan daiteke urtegia. Alegia, ureztatzeko azpiegiturak langurien erakarriko litzukeela uste dute, eta horrek lagunduko lukeela populazio galerari aurre egiten.

Lurrak ureztatzeko asmoz eraikitako Arabako urtegi handienetakoa litzateke Barróngo, 182 milioi euroko aurrekontuarekin. 70-80 hektarea okupatuko litzuke eta 4,8 hektometro kubo ur piltzeko gaitasuna izango luke. Laborantza lurrek duten beharrei erreparatu, gehiegi, hainbat bizilagunen aburuz. Batzuek informazio falta salatu dute eta, jakin-minak bultzaturik, antolatzen hasiak dira: Barrón-Añana Urtegiari Ez plataforma sortu dute.

1999an diseinaturiko egitasmoa zaharkiturik dagoela iritzita, ikerketa

sozioekonomiko eguneratua aldarrikatzen dute urtegiaren aurkakoei. “Lehenik eta behin inguruan zenbat nekazari dauden jakin behar lukete bultzatzaileek, euren lurrak ureztatzeko gisa honetako azpiegitura baten beharra zenbaterik duten alegia”, dio plataformako Maite Cruzek. “Halakorik egin ezean, sekulako aldea egon daiteke eskariaren eta eskaintzaren artean”.

Barrón eta Gineako lurrak hartuko litzuke urtegiak, baina inguruko herrietan ere izango luke eraginik. Presaren 35 metroko horma nagusia Atiega herriatik gertu eraikiko litzateke, eta horrek kezka eragiten du. “Hormak eztanda eginez gero, herri guztia itoko da”, adierazi du plataformako beste kide batek, Txus Fernandezek. Atiegara iristeko errepidea lekuz aldatzea ere ekarriko luke azpiegitura eraikitzeak.

Nori interesatzen zaio?

Egitasmoaren bultzatzaileek hainbat fasetan banatu dute prozesua. 2008an ekin zieten lanei eta oraingoz hiru putzu eraiki dituzte; horietako bat ez da erabiltzen, bizilagunen arabera, beharrik ez dagoelako. Horregatik, urtegia eraikitzeko bestelako interesak egon daitezkeela iritziz dute. “Usain txarra

hartzen diogu proiektuari, enpresa interesatu asko egon daiteke”, azaldu du Fernandezek. Espainiako Estatuko hornigoia eta uraren alorreko presio taldeak aipatu dituzte bizilagunek. Horien artean dago Acuamed, Espainiako Nekazaritza eta Ingurumen Ministerioaren menpeko enpresa publikoa, gaur egun iruzur auzi batean murgilduta dagoena.

Alta, Arabako nekazari guztiak ez daude ados plataformaren aldarriarekin. Batzuek uste dute ez dela ikerketa sozioekonomikoa egiteko unea. “Ezin dugu etengabe egoera ikertu, urteak daramatzagu ureztatzeko azpiegiturak exijitzen eta behingoz obrei ekin dietenean ezin dugu proiektua geldiarazi. Barróngo urtegiaren aurka egoteagatik ezin dugu egitasmo osoa eten”, adierazi du UAGA Arabako Nekazarien Elkartearen presidentea Javier Torrekin.

Ezin daiteke uka langurien artean badela eztabaidarik eta UAGA da horren isla. Barróngo urtegiaren auzian bateko eta besteko iritziak ditu sindikatuak ere, eta kide batzuentzat ezezaguna da gaia. Horren aurrean, egitasmoaren aldekoak bereganatzea baino, Barróngo urtegiaren ezer ez dakitenak informatzea du plataformak lehentasun.



IKER OÑATE AIASTUI



Gaur egun nekazarien ureztaketa premiak asetzeko erabiltzen diren putzuetako bat, Valluerca.

BARRÓN-ANANA URTEGIARI EZ PLATAFORMA

Desjabetuak ere ezjakin

Barróngo urtegiak okupatuko lukeen luraren %100 laborantza lurra litzateke, inguruko nekazarien jabetzapekoa. Lurrrak galduko lituzketenen artean dago Maite Cruz; oraindik ez daki zer jasoko duen nahitaezko desjabetze horren ordainetan. Hori bai, argi du jarrera: “Nik ez dut dirurik nahi. Ustiategiaren %50 kentzen badidate, zer egingo dut?”.

Bizilagunek ez dakite zein baldintzatan egingo diren nahitaezko desjabetzeak, ezta noiz egingo diren ere. Horregatik, egitasmoaren alde daudenei entzuteko eta eztabaidatzeko prest ager daitezten eskatzen diete: “Aintzat har dezatela, gutxi batzuen mesedetan, hainbat bizilagunek lurrrak galduko ditugula. Gure lekuan jartzea besterik ez dute”.

Ura ponpatzeko beharra: egitasmoaren porrota

Quejo, Nograro eta Barrio herriak lirateke Barróngo urtegiaren iturburu. Arabako Foru Aldundiaren esanetan, printzipioz ez legoke ura ponpatu beharrik, urak bidea bere kabuz egingo duen esperantza dagoelako. Hala ere, Aldundiak onartu du, beharra balego, ura Osmatik ponpatzeko aukera ere aurreikusi dela. Uraren prezioa garestituko luke horrek eta urtegia ez litzateke bideragarria izango nekazariantzat. Proiektuaren porrota izango litzateke. Kasu horretan, UAGaren babesa ere galduko luke egitasmoak.

Lurzoruaen egoerak eragina du ura ponpatzeko beharrean. Plataformako kideak hasiak dira beren kabuz inguru-

» Halako azpiegitura baten beharra gaur egun zenbat nekazarik duten neurtu beharko litzateke, urtegiaren aurkarien ustez

» Sustatzaileen aburuz, nekazaritzaren gainbehera irauteko tresna izan daiteke Barróngo urtegia

nea aztertzen eta orain arteko datuek ez diete baikortasunerako biderik ireki. Ebroko Ur Konfederazioak harturiko laginen arabera, Barróngo lurzorua iragazkorra da; hori oztupo litzateke ura pilatzeko.

Arabako Foru Aldundiak aurretik ere eraikiak ditu ureztatzeko azpiegiturak lur iragazkorretan eta esperimenduak ez du emaitza onik lortu. Bizilagunek Norystekoko egitasmoa dute gogoan: Arabako Foru Aldundiak 30 milioi euroko inbertsioa egin zuen Uribarri Arratzua urez hornitu nahian. Jasotzen duen uraren %4 besterik ezin du pilatu lur iragazkorretan eraikitako azpiegitura horrek.

Prozesu parte-hartzailea ireki nahian

Aldarria indartzeko ahaleginean, Barrón-Añana Urtegiari Ez plataformak fase berri bat ireki du, eztabaida Arabako Foru Aldundira eramanez. Alderdiekin batzartu da, baina ez du guztien onespina erdietsi: EAJ eta PP urtegiaren alde daude, eta Ciudadanosek eta PSE-EEK gehiago ikertu behar dela diote. EH Bildu, Ahal Dugu eta Irabazi aurka azaldu dira.

Proiektua adituek eta herritarrek esku hartuko duten prozesu parte-hartzaile baten bidez birpentsatzea litzateke hurrengo urratsa, plataformaren ustez. Lanean dihardute hori lortzera bidean, batzar informatiboak eta mahai inguruak antolatuz. Informazio faltari aurre egin eta Barróngo urtegiaren erakuntza eztabaidagai publiko bilakatzea da haien helburua. ■

UDAL LEGEA

UDALERRI EUSKALDUNEK BADUTE ATERPEA

Eusko Legebiltzarrak apirila hasieran onartu zuen Euskadiko Toki Erakundearen Legea (Udal Legea ere deitua). Legearen lehen zirriborroan euskararen atalik ez zegoen. Atala sortu zutenetik legean sartu denera pauso galanta eman da. UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak hala dio bere balorazioan: legeak helburutzat hartu du toki administrazioan euskara erabat berreskuratzea, udalak eredu eta aitzindari izatea eta euskararen garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak alboratzea. Legearen garrantziaren jakitun, Espainiako Gobernuak pasa den astean adierazi zuen hainbat artikuluko lege kanpokoak direla. Legearen indarguneak eta aihulguneak aipatu ditugu ondoko lerroetan.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: J. C. RUIZ / ARGAZKI PRESS

ZER DU ON?

Udalek eskumena dute

Euskara udal eskumena badela jasota UEMAREN izaera aitortzen da. Lehen udalek euskara eskumenik ez zuten, esaten zitzaien ez zutela euskara zerbitzuak eskaintzeko mankomunitate bat sortzerik. Ez zen UEMAREN kontra zuzenean jo, baina hainbat udalek arazo juridikoak izan dituzte, besteak beste UEMAKO kide izateagatik. 2008an, arazo horiek saihesteko, UEMA euskara zerbitzuez gain bestelako zerbitzuak eskaintzen hasi zen. 2014ra arteko bakera izan zuten eta urte hartan Carlos Urquijo EAEn Espainiako Gobernuaren ordezkaria errekurtoak jartzen hasi zen berriz. Orain, atzera egin du.

Derrigorrezko elebitasuna gainditu da

Zenbait mugarekin, baina udalak euskara hutsean aritu daitezke. Udal Legeak 1982ko Euskararen Legearen planteamendua gaintzen du. Lege horrek toki administrazioak bi hizkuntzetan egitera derrigortzen ditu. 1982ko Legea batik

bat udalerrri erdaldunei begira egindakoa da, euskara ziurtatu ahal izateko. Alderantziz, besteak beste UEMAK eskatu izan du udalerrri euskaldunentzat lege babes berezia izatea. Bada Udal Legeak, neurri handi batean, euskara hutsean aritu nahi duten udalerrri euskaldunak babesten ditu.

Udal Legeak Euskararen Legea berri-kusteko beharra are ageriagoan jarri du mahai gainean.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin beharra

Hirigintza plan batek edo beste edozein esku-hartzek eremu jakin batean hizkuntzan eragin dezakeela aurreikusiz gero legeak ebaluazioa egitera behartzen ditu toki administrazioak. Ebaluazioa legean sartu izana pauso ikaragarria iruditu zaio UEMARI, kontuan izanda ebaluazio tresna sortzeko lehen pausoak duela hiru bat urte eman zirela. Alabaina, ebaluazioa egitea onartu bai, baina gauza asko zehaztu gabe daude, besteak beste, nork erabakiko duen eragin linguistikoa izango duen ala ez, zein ebaluazio tresna aplikatuko den, eta neurri zuzentzaileak nola hartuko diren. Bestalde, Legearen akatsen zu-

zenketen orduan tresna udalerrri guztietan edo udalerrri euskaldunetan soilik aplikatuko den argitu beharko da, gaztelaniazko bertsioak eta euskarazkoak ez baitiote gauza bera.

Kontratazioetan hizkuntza irizpideak jarri ditzake udalak

UEMAKO udalei kontratazioetan hizkuntza irizpideak ezartzea errekurritu zieten, argudiatuz kontratazio prozesurako legea Espainiar Estatukoa dela. Udal Legeak ordea, udalei eskumen hori eman die zerbitzu publikoa eskaintzeko kontratazioak egiten dituztenetarako. Adibidez, kiroldegia esleitzerakoan hizkuntza irizpideak ezarri ahalko ditu udalak. Aldiz, zalantzarikoa da berdin egin dezakeen obra publiko bat esleitzerakoan, kasu horretan herritarrekin harreman zuzenik ez baitago.

ZERK EGITEN DU TRABA?

Zinegotziak ez badaki euskaraz?

Udal Legeak euskararen aldeko erabakiak mugatzeko joera du. Esate baterako, udal barneko jardura euskara hutsean izan daitekeela dio, baldin eta hautetsiak gai badira euskaraz moldatzeko. Beraz, hautetsien hizkuntza gai-



Irudian Kontseiluak deitutako elkarretaratzea Tolosan 2014an. Carlos Urquijo EAEn Espainiako Gobernuaren ordezkaria hizkuntza irizpideengatik helegiteak jartzen ari zen hainbat udal.

tasuna muga modura planteatzen da, norbaitek alegatzen badu ez dakiela euskara gaztelaniaz eman behar zaio. Egia da ordea, beste artikulua batean ikuspegi positiboa eskaintzen duela eta dio zinegotziak euskaraz ez baldin badaki jakitea sustatu behar dela, nahiz eta gero ez duen zehazten sustapena nola egingo den.

Euskara hutsean bezala, gaztelania hutsean

Lehen ere administrazioen arteko harremanetan dokumentuak euskaraz bidaltzeak balio juridikoa bazuen, baina liskarrak sortu izan dira, euskara hutsez zirelako eta ez bi hizkuntzatan. Udal Legeak balio juridiko osoa eman die euskarari hutsezko dokumentuei. Beraz, gaztela-

nia hutsezko dokumentuek ere balio bera dute. Adibidez, udal batek besteari euskarari hutsean bidal diezaioke dokumentua, eta besteak gaztelania hutsean erantzun.

Diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak ezin ezarri

Bereziki udalerrri euskaldunetan, arautzen ez diren gauza asko berriz ere betiko legepean geratu dira. Diru-laguntzak dira horren adibide. Diru-laguntzetan ezin ziren hizkuntza irizpideak sartu eta hemendik aurrera ere ez. Esate baterako, udalak ezin du agindu 25 urtetik beherakoentzat ekitaldiak antolatzeko diru-laguntzak lortu nahi dituenak euskaraz egin behar duela.

Bandoak euskara hutsean?

Zehaztu gabeko beste kontu bat. Udalerrri euskaldunetan herritarrekin zuzeneko harremanetan euskara hutsean aritzea zilegi da. Aldiz, zalantzazkoa da zabalkunde orokorreko testuetan nola jokatu. Adibidez, bandoa jar daiteke euskara hutsean eta ohartxoa jarri esanez gaztelaniazkoa nahi duenak udalean eskatzeko? Herritarraren hizkuntza eskubideak urratu dira?

Aurrerapauso nabaria

2015eko martxoan ARGIAk azala eman zion udalerrri euskaldunak epaitegietan jasaten ari ziren jazarpenari. Orduan genioen Euskararen Legeak ez zituela babesten udalerrri euskaldunak, gaztelania alboan ez bazuen euskarak bakarrik ez zuela baliorik. UEMAk Udal Legea oso lege positibotzat du, aurrerapauso handiak eman direla uste du, nahiz eta “ez den guk egingo genukeen legea, hala balitz bereziki jasoko zuen irizpide propioak jarri ahal izatea baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten udalerrietan”.

Udalerrri euskaldun askok arnasa hartuko dute lege berriari esker, nahiz eta badituen zirrikituak eta Carlos Urquijo EAEn Espainiako Gobernuaren ordezkariak, hala nahi badu, lana izango duen. ■

BABESLEA: IVAP

 HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA	 Enplegu Publikoa Lan-erakundearen finkapena Lan-pauek (Eusko Legeak) Beste administrazioetako lan-erakundeak Hartzaileak Ondorioak: 2014-15eko Enplegu Publikoko erabakia Ertzaintza XXV. Prozesua Enplegu Publikoaren Erabakia, Eusko Legeak	 Prestakuntza Administrazio erakunde Toki Administrazioak Finan administrazioak Bereziki hizkuntza prestakuntza EVEU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	 Euskara Euskararen Babeslea Hizkuntza erakundeak Bereziki hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Euskararen lan erakunde baliabideak GD - Hizkuntza Zerkatu Ofiziala	 euskadi.eus
--	---	--	---	--

Donostiako sosak




Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Landareen sentsibilitateaz eta inteligentziaz jabetzera iristen garenean beste era batera begiratu diegu. Bitartean, bide horren jorran eta garbiketan lana suelto egin beharrean gara.

Gure ezjakintasunaren eta moztasunaren ondorioak hirietako zuhaitzek sufritzen dituzte gehien. Gehienen aburuz, zuhaitzek betebeharrak estetiko soilak dute etxe inguruetan. Jende mordo bati “zikinkeria” sortzaile direla iruditzen zaio: hostoak botatzen dituzte, haziak, fruituak, adarrak... Sustraiekin espaloiak harrotzen dituztela ikusita azpijokoaren kriminalak eta zankalatrabatzaileak ere badirela uste duenik ere bada.

Kalifornian egin duten ikerketa baten arabera, ordea, zuhaitzek, besteak beste, mesede ekonomiko nabarmena dakarkiete beraiek zaintzen dituzten udal eta herritarrei. Hona datuak eurotan: hozte eta berokuntza sistematan eragiten duten energia aurrezpena, 90,70 milioi; euri jasak baretzea, 37,21 milioi; aireko kutsadura garbitzea, 16,27 milioi; karbonoa metatzea, 9,25 milioi. Horri inguruan dituzten etxeei gehitzen



Itxuraz 150.000 zuhaitz daude Donostian. Argazkian, hiriko parkeetako bat.

dien balioa erantsi behar zaio: 752,22 milioi. Batuketa erraza da: 905,65 milioi euro. No eta to onura. Lau biztanleko, kaleko zuhaitz bat dute; denetara, 9,1 milioi zuhaitz. Baina beste hamasei milioi landatzeko tokia ere ba omen dute. Gaur egun dituztenekin, zuhaitz bakoitzak dakarren onura 100 eurokoa da.

Onura ekonomiko hori Donostia-
ra eramaten saiatuko naiz. Itxuraz, 150.000 zuhaitz –kale, parke eta baso– eta 185.000 biztanle inguru ditu. Kalifornian zuhaitz batek eragiten duen

mesede eta Donostian egin dezakeena tankeratsukoa izan daitekeela amestuko bagenu, 150.000 zuhaitz horiek Donostiari eta donostiarrei hamabost milioi euroko dibidendu garbia ekarriko liekete. Donostiar bakoitzarentzat, 81 euro. Txartxoa!

Iruñeko 144.000 zuhaitzek sanfermin-
nek baino diru gehiago ematen diote 196.000 biztanleetako bakoitzari.

Euro hutsari lotutako hori zuhaitzei begiratzeko modu “zikinxegoa” da, baina, haien mesederako bada, aurrera! ■

Perretxiko zaindariak

Orain prezio berezia! 15€

Perretxiko bila joatea atsegin duzu?

Jolas honekin perretxiku biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

Eskaerak: ☎ 943 37 15 45 • denda@argia.eus • www.argia.eus/denda



EHKOLEKTIBOAK UTZIA

EHKOLEKTIBOAK

Bertako zerealen trukean



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Zereal-okin, zereal-abeltzain zuzeneko trukaketak 2016”. Izen hori daraman e-postak nire arreta deitu du postontzia begiratzen nembilela. Hor sartu naiz kuxkuxeatzera, eta taula batekin egin dut topo: erosi/saldu, produktua eta barrietatea, kantitatea...

EHKolektiboak bertako zereal trukaketen bigarren deialdia antolatu du uztailean. Lehenengoa ekainean egin bazuten, orain, zerealen uzta jasoko dela aprobeztatzuz (batez ere garia, ogigintzarako) parte hartzeko ateak berriro irekitzea pentsatu dute, jende gehiagok bat egingen duelakoan.

Erosi, saldu, edo zergatik ez trukatu?

“Ikusi dugu askotan ez dugula jakiten nork daukan produktua jakin bat eta noiz, nora jo dezakegun”, azaldu digu Aloña Gonzalez Bereau EHKolektiboako kideak. Ekaineko deialdia lehena izanik, aurrera begira ekimenean jende gehiagok parte hartu dezakeela uste dute. Horregatik erabaki dute deialdi berria egitea.

Baina nola funtzionatzen du kontuak? Bada, inkesta bidali dio EHKolektiboak interesa izan dezakeen jendeari. Parte hartu nahi duenak hori bete eta uztailearen 15a baino lehen bidali beharko du: “Gure lana informazio guztia biltzea izan da, ondoren parte hartu duten guztiei

taula bat bidaltzeko saltzeko/erosteko/trukatzeke dauden produktu guztiekin”.

Trukaketak egiteko harremanetan jartzea, berriz, norberaren esku egon da. “Askotan hobeto ulertzen dugu elkar zuzeneko harremanetan jartzen garenean”, dio Gonzalez Bereauk.

Baserritar, okin, eraldatzaile nahiz abeltzaintzat

Aurreko deialdian, batez ere, okinek eta eraldaketan dabilzanek hartu bazuten parte, abeltzaintzat ere oso interesgarri izan daitekeela uste dute antolatzaileek: “Garia egiten duenak askotan badu alpapa, edo belar bazka, eta hori abeltzaintzat aukera oso ona izan daiteke”.

Gure hartu-emanak ahalik eta gertuenera ekartzeko helburuarekin abiatu dute ekimena, distantziak mozteko. Agroekologiaren garapena eta lanketa egitea baita EHKolektiboaren ardatz nagusia, baina betiere ondoko irizpideekin ulertuta: ekologikoa, tokikoa, sasoikoa. “Nekazaritza ekologikoa ingurumena eta gu guztion osasuna zaintzen duen eredu da, baina herri txikien biziraupena, gazteen nekazaritzarako sarbidea edota bertako ekoizpena eta kontsumoa ere bermatu beharra du, besteak beste. Kultura baten berreskurapena da, azken batean”. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
“mattin” Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura

iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Uztailak 22: Oñati.

Lurgorri dendaren inaugurazioan
(Goribar auzoa, 15), 17:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

LABANA ORIGINALA ETA BENETAKOA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Suitza, 1880ko hamarkada. Armadak erabaki zuen soldaduek sakelako tresna praktiko eta eramangarria izan behar zutela. Tresnak labana izango zuen, eta poto-irekigailu bat ere bai. Gainera Suitzako soldaduek Schmidt-Rubin errifleak erabiltzen zituzten eta horiek muntatzeko bihurkina behar zen. Hala, hiru funtzioko labana tolesgarria egiteko enkargua egin zuen, baina Suitzan horrelakoak ekoizteko enpresarik ez omen zegoenez, labanak Alemanian egiten hasi ziren. *Modell 1890* izena ipini zioten eta 1891ko urrian iritsi ziren 15.000 soldaduren eskuetara.

Karl Elsener (1860-1918) asmatzailerak ekipamendu kirurgikoa ekoizten zuen enpresa bat zeukan garai hartan, eta armadaren tresna atzeritik ekartzea aberriarentzako iraina iruditu zitzaion. Gailua etxean ekoiztea erabaki zuen eta Alemaniatik etorritakoaren antzeko labana asmatu zuen. Armadako hainbat kidek probatu zutenean, erantzuna ez zen txarra izan, baina zenbait kexa ere jaso zituen, produktua hobetzen ahalegindu zen. Malguki sistema berritzailea asmatu zuen, gaur egun oraindik erabiltzen dena eta tresnak labanaren bi aldetan jartzeko aukera ematen duena.

Horri esker, arrakastaren giltza aurkitu zuen: kortxo kentzekoa erantsi zion.



Victorinox labanaren argazkia, "Suitzako armadaren labana originala".
Bestea, Wenger, "Suitzako armadaren benetako labana" da...

Janari potoak irekitzea bezain garrantzitsua zen, nonbait, botilak ireki ahal izatea. Elsenerrek armadaren labana ekoizteko kontratua lortu zuen.

1909an enpresak Victorinox izena hartu zuen. Urte hartan Elsenerren ama hil zen eta haren izena jarri nahi izan zion: Victoria. Izenari "inox" gehitu zion, labana altzairu herdoilgaitzez egina zegoelako.

Konpetentzia izen berria baino lehenago iritsi zitzaion Victorinox. 1893an Paul Boéchat & Cie enpresa –gerora Wenger izango zena– antzeko produktua ekoizten hasi zen. 1908an, fabori-

tismoak saihestu nahian, eta prezioak jaisteko itxaropenez, armadak kontratua bi zatitan banatu zuen eta bakoi-tzari enkarguen erdiak eman zizkion. Victorinox "Suitzako armadako labana originala" izango zen handik aurrera, eta Wenger, berriz, "Suitzako armadako benetako labana".

2005ean Victorinoxek Wenger erosi zuen, baina bi markak atxikiko zituela iragarri zuen. 2013an, ordea, Wenger labanak ekoizteari utziko ziotela jakinarazi zuen, labana suitzarraren neutraltasun historikoari azkena emanez. ■



Iosif Vissarionovitch-en ezizenak

Iosif Vissarionovitch Djugaixvili (1878-1953) osasun ahulekoa izan zen txikitik, eta "herrena" edo "pikatua" esaten omen zioten. Gaztetan, tsarraren erregimenaren aurka hasi zenean, *Koba* ezizena ipini zioten, bidelapur eta errebolatari georgiar ospetsuaren omenez. Poesian ere saiatu zen Iosif eta horretarako *Soselo* goitizena erabili zuen.

Gero, SESBko agintari gorena izango zen, eta zenbait izengoiti edo titulu xume jarriko zizkion bere buruari: "Nazioen aita", "gizateriaren jenio bikaina", "komunismoaren arkitekto handia" edo "giza zoriontasunaren lorezaina". Baina goitizen guztietan eza-gunena *Stalin* izan zen, hau da, "altzairuz egindakoa". ■



2016KO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Sustrai Colinak jaso du Rikardo Arregi Sari Nagusia, ARGIA eginiko elkarrizketengatik. Amagoia Gurrutxagak Sari Berezia irabazi du, Kristiane Etxaluzi *Jakin* aldizkarian egindako elkarrizketa-biografiagatik. Eta Unai Oiartzunek merezi izan du Kazetari Berriaren saria, *Irunero* aldizkariko erreportaje sortarekin. Argazkian, sarituak Xabier Lakaren ikurra eskuan, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika-ko sailburuordearekin eta Ana Karrere Andoaingo alkatearekin.

Bertsotan egin zuen saritu nagusiak bere hitzaldia. Bere buruari egingo lizkioken galderak jaulkiz (zorrotzak, Colinarenak ohi direnez):

*Sariei buruz zer iritzi duzu
zer iritzi zenuen lehen?
Bankuan zenbat euro dituzu
astean zenbat astelehen?
Kuriositatez sartzen al duzu
zure izena Googlen?
Berdina ote zara Istanbulen,
Bilbon eta Urepelen?*

*Agurtzen ote duzu eskalerik
pasa ezker gertutik?
Zer dela eta ez duzu blogik,
ez twitterrik ez facebookik?
Zer ikusten duzu mundua etzanda
edo Gipuzkoa Zutik?
Kartak nahasteko prest ote zaude
zeu egon arren eskutik?*

*Legeen beldur bizi al zara?
Arraina ala okela?
Zure ustez noiz kendu beharko
lukete gazte-txartela?
Zezenketez zer iritzi duzu?
Suedia ala Venezuela?
Behin hildakoan zeinek eta non
jarriko dizu eskela?*

*Inbidiarik sortzen al dizu
katalanen egoerak?
Zure etxera etortzen al da
kanpoko garbitzaile bat?
Zure kasuan puntu bat edo
hiru dauzka bukaerak?
Ta erantzuten ote dituzu
zeuk egindako galderak?*

» ARGIA.eus-en dago irakurgai sari banaketaren kronika.

*“Zoriondu nahi zaituztet,
astero etxera bidaltzen
didazuen opari puskagatik.
Ederra egiten duzuen lana”*

Beñat Elizalde,
ARGIAkoa

Bizi-Baratzea Tourrean



Gorka Izagirrearen irakurgai da.

ARGIAko sailekin zuzenago komunikatzeko emailak

Erredakziotik saiatzen gara gaiei gertuko jarraipena egiten, eta horretarako gaika gaude lantaldean antolatuta. Erredakziora iristen diren informazioak, abisuak, iradokizunak... lantaldeetara zuzenago iritsi daitezke, gai bakoitzeko helbide bat sortu dugu. Horrela gai horretako lantalde osoarengana iritsiko da mezua. Hauexek dira helbideak:

- ekonomia@argia.eus
- euskara@argia.eus
- gizartea@argia.eus
- historia@argia.eus
- ingurumena@argia.eus
- kultura@argia.eus
- nazioartea@argia.eus
- feminismoa@argia.eus
- zientzia@argia.eus

Xabier Queiruga, Pasazaite-ko editorea

“ARGITALETXEAK DIRURIK EZ EMATEA EZ DA ONA, EZ NIRETZAT EZ EUSKAL KULTURARENTZAT”

1979. Vilagarcia de Arousa (Pontevedra). 1999 urte aldean Bilbora etorri zen zuzenbide ikasketak egitera. Abokatutzan bi urteko praktikak egin zituen, baina ez zitzaion laketu. Donostian finkatu zen urte bat geroago bertako bikote-lagunarekin. Decathlon kirol enpresako langilea da egun erdiz. Beste erdian, bi haurren ardura izateaz gain, liburuak ditu pasio eta bizibide. Ez ogibide, haatik. Pasazaite argitaletxea zabaldu zuen 2012an. Urtea amaitu orduko beste bi liburu kaleratuko ditu: Hassan Blasimen *Kristo irakiarra* eta Jack Kerouacen *On the Road*.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Editore ezohikoa. Berezia. Arraroa. Historia honetako protagonistak nahi beste izenondo har dezake. Donostiako San Telmo Museoko kafetegi-terrazan luza-tu dizkiogu bostekoak elkarri. Argazkilariak adi entzun du, liburuak mozkin berezi moduan azaldu digun historia-ren protagonista. Pasazaiteko liburuak munduko mugen gaindi datoz, “literatura” dute izenondo. Estreinako galdera, harridurazkoa: “Nolatan editore?”.

“Egiari zor, ez naiz editorea. Ez daukat editatzeko beharrezkoa den euskararen ezagutza. Familiaren edo lagunaren alde-tik ez daukat literaturarekin loturarik. Bikote-laguna ere ez da literaturaren mundukoa. Noski, gurasoek irakurtze-ko grina sarrarazi ziguten. Horixe izan da nire txikitako hobya”, diosku solaskideak. Kirola egitea ere gustatu zaio Queirugari, errugbilaria izana da.

Argitaletxea zabaltzea aspaldi zuen bu-ruan; 2012 urtean eman zuen urratsa, hain zuzen beste editorial batzuk ixte-kotan zirenenan: “Galiziako Rinoceronte Editorako Moisés Barciari deitu nion. Ez nuen ezagutzen. Itzulpena lantzen du. Berak azaldu zidan argitaletxearen alde enpresariala. Kalkuluak egin nituen eta aurrera”. Haatik, enpresak ez du diru ete-

kinik ematen, liburuak argitaratzeko doia baino ez. Lau urte bete ditu uztailean. Bizpahiru liburu kaleratu ditu urtero: 10 dagoeneko. Denak euskaraz: “Ez zitzai-dan gaztelaniara itzultzea ez bururatu ez interesatu. Hutsunea euskaraz zegoen eta dago. Beraz, izatekotan, euskaraz”.

Rinoceronte Editora galiziarra ezagu-tzean, batez ere, literatura unibertsale-ko klasikoak itzuliak zirela jabetu zen, batik bat klasiko handiak: “Itzulpena konpromisoa eginga da, nolabait. Galizie-raz horiek edukitzea ongi dago, ez nago aurka. Baina, badira ezezagunak diren liburu asko, itzuli gabe direnak. Horiek euskarara ere ekarri behar zirela pen-tsatu nuen”.

Kaleratutako hamar liburuen tamai-nan erreparatu dugu, antzekoak dira denak. Ez da bere aukera, ekonomiak mugatzen du handiagoak argitaratzea. Kostuak geldiarazten du: “Orri gehiago egiteak liburuak garestitzea dakar, itzul-pena ordaindu behar delako. Gehienez, 220-230 orrialdetan doitu behar izan dut; 14-16 euroko prezioan. Itzulpena izateko ez da garestia, liburuek gehiago balio dute normalean”.

Queirugak ez du deus irabazten, ezta galdu ere: “Batzuek triatloiak egiten

dituzte, mendiko martxak edo surfa... Nik gustuko autoreak argitaratzen ditut euskaraz. Baina, argi gera bedi, ez dut hobby bezala hartu nahi. Hobe gehiago argitaratuko banu eta ogibide bihurtu. Niri ekonomikoki ez dit deus uzten, eta hori ez da ona editorearentzat, ez euskal kulturarentzat orobat. Ahalaz, nahiago nuke honetaz bizi”.

Pasazaite editorialak lan profesionala egiten du, baina editorea ez da profesio-nala: “Dena den, ez altruismoa ez bolun-tarismoa ez dira onak. Igual nekatzen naiz eta bizimodu hau aldatu behar dut”.

Editore berezi honek proiektua irau-naraztea lortu du eta pozik dago. Ez da gutxi, liburuaren mundua ikusita: “Beste bi urterako indarrean aurreikusten dut proiektua. Harrituta nago, urteak pasa ahala liburuak saltzen direlako. Editoria-lak ixten ari diren garaiotan, editoriala ezerezetik ateratzea ez da gutxi. Areago: idazle berriek eta itzultzaileek morroi hau nondik agertu den galdetzea eta in-terestatzea, ez da gutxi. Besteak beste, jatorriz bertakoa ez naizelako”.

Argitaletxearen izenak eta honen lo-goak (Check pointa) aditzera ematen dutenez, Pasazaiteko inportazioko libu-ruak ekartzen ditu. Queirugaren nahia



"Kalkulu zorrotza egiten dut. Aurrekoak dirua eman badu, gastuak kitatu eta beste edizio bat prestatzen dut. Irakurketa klubetan ongi funtzionatzen dute Pasazaiteko liburuek."

liburua muga gainditzen duen merkantzia gisa lantzea zen. Donostiako La Personnalité estudioan lagundu zioten liburuek eta webgunea diseinatzeko. Diru etekinik uzten ez duten liburuen maitale honek ez du argazkirik nahi liburuen azalean, irudiz kargatu gabeak maite ditu: "Azal garbiak izateko mugakin jokatu genuen. Liburugileen herrialdeen mugak ageri dira azalean eta kontrazalean. Liburuak berez ematen du bere burua ezagutzera. Bereiz dira bestetik".

Bulegoa eta liburuen biltegia etxean ditu. Baina dena legala da: autoreak, argazkigilea, itzultzailea, zuzentzailea, diseinua... den-dena ordaindua da. Alta,

ez da Eusko Jaurlaritzaren ez Gipuzkoako Foru Aldundiaren logorik ageri: "Laguntza jasotzeko arauak berritu behar lirateke. Liburuak tirada gutxieneko bat izan behar du. Nireak txikiak direnez, laguntzarik ez dut. Lehen bost liburuek *offset* egin nituen: 900 ale bakoitzeko. Orain, berriz, tirada digitala da. Liburua pixka bat garestiagoa da, baina tirada txikiagoa: 300 hasteko. Salduz gero, beste 50 eskatu eta segi aurrera". Editore asko digitalean ari da egun. Gaztelaniazko tirada 2.000 ale ingurukoa da. Arriskurik ez, beraz.

Elkar enpresa banatzailearen bidez zabaltzen du tiradaren parte bat. Gaine-

rakoak berak eramaten ditu dendetara. 5.000 liburuki ekoitzi eta ia denak saldu ditu. Adibidez, bigarren edizioaren *Muskuiluak afaltzeko* (Birgit Vanderbeke; Ainhua Irazustabarrenak itzulia) 900 aleak salduta dauzka: "Kalkulu zorrotza egiten dut. Aurrekoak dirua eman badu, gastuak kitatu eta beste edizio bat prestatzen dut. Irakurketa klubetan ongi funtzionatzen dute Pasazaiteko liburuek. Literatur klubetako kideek gonbidatua izaten naiz, harreman modu goxoa izaten da. Irakurleek liburuak gomendatzen dituzte euren zirkuluetan".

Ospe oneko editorea

Pasazaitek ospe ona lortu du irakurleen artean, hasteko eta behin, editoreak itzultzaile onak inguratu dituelako: "Kostatu zitzaidan itzultzaileak aurkitzea. Guztiak ez dira horretara emanak, batzuk unibertsitatean ari dira edota prentsan. Orain arte, liburu bakoitzeko itzultzaile bat aurkitu dut, diferentea beti, autorearen hizkuntza eta gaiaren arabera". Xabier Queirugak hainbat hizkuntza ezagutzen du, euskara ez du guztiz menperatzen, baina itzultzaile eta zuzentzaileez fio dela dio: "Konfiantza osoa daukat eurengan. Itzuli. Irakurri. Aldaketak berrikusi, itzultzaileak ontzat eman eta argitara ematen dut".

Liburuaren egile eskubideek %8 balio dute. Egileek badakite editoriala txikia dela, baina hizkuntza ere: "Hala ere, nik EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte) jarritako tarifak ordaintzen ditut. Kontzientzia lasai behar du. Horregatik muntatu nuen proiektua. Edo deitu negozioa. Negozioa da, niretzat ez, baina liburuaren gainarako egileentzat hala da bere txikian".

Internetek egin du posible bere proiektua. Munduan barrera nabigatzen du, liburuak zerrendatzen ditu, gomendioak eskatu, iritziak eta kritikak irakurri...: "Batez beste, kalkulatu dut egun bakoitzeko 15 minutu behar dudala. Aldian-aldean, egile, itzultzaile, zuzentzaile eta diseinatzaileekin ari naizenean, bi aste lan intentsua egiten dut liburu bakoitzeko".

Hurrengo bi liburuetan ari da: Hassan Blasimen *Kristo irakiarra*, Ana Isabel Moralesek itzulia eta Jack Kerouacen *On the Road*, Iñigo Roque itzulia. Azken horren euskarazko izenburua ez da oraindik erabakia. Bidean dago, hala ere. ■

POLITIKA BERRIA? TELESAILETAKOA

Fikziozkoak diruditen politikariekin aspertuta zaude, baina biak bananduta, fikzioa eta politika, atsegin dituzu? Zorionekoa zu, azkenaldian telesail politikoen loraldi txiki bat bizitzen ari baikara. Euskal Herrian tradizio txikia du generoak, baina gaiak pizten dituen pasioak kontuan izanda, akaso atzerriko ereduak emango dute pistaren bat une honetan fikzioz umezurtz dagoen Euskal Telebistan zerbait berria sortzeko.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Ezin lehiatu *Goenkale* erraldoiarekin, baina bere laburrean, ETBn ikusi ahal izan ditugu agintari politikoak protagonista dituzten bi ekoizpen esanguratsu. 1980ko hamarkadara bidaiatu behar dugu lehenbizikoa begiz jotzeko: *Bai, ministroa* BBCko ekoizpena euskaraz bi-koiztuta ikusi ahal izan zuten telebista autonomikoaren aurreneko ikusleek, baita haren jarraipen gisa pantailaratu zuten *Bai, lehen ministroa* ere. Hamar bat urte geroago inauguratu zen euskarazko telesail politikoen etxeko produkzioa. Asmatu duzu, 1997an estreinatu zen *Jaun ta jabetri* buruz ari gara: Eneko Olasagasti kapitain zuen taldeak Ajuria Enea okupatu zuen eta komediak hain ondo funtzionatu, ezen zenbaitek pentsatzen baitu Lizarra-Garaziko akordiorik ez zela posible izango Arizkorretaren Gernikako piperrik gabe. Zerrenda hor bukatuko zen, duela gutxi hedabide honetan Hiru Damatxo ideia faktoriak *Txoministak* telesaila estreinatu izan ez balu. Lehen denboraldian Errioxa zortzigarren euskal probintzia gisa aldarrikatzen duen alderdi politiko berriaren sorrera kontatu digute, *The office* estiloen.

Hirurak aztertuta, elkarren arteko diferentziak handiak diren arren, euskaraz emititu diren telesail politikoei orain arte bi oinarritzko osagai izan dituztela esan dezakegu: existitzen ez den edo zehazten ez den alderdi bateko ki-deak dira protagonistak kasu guztietan; eta politika -gai serioa inondik ere-, umorez lantzen dute.

Moko okerreko demokratik

Izango da hemen fikzioari -eta kulturari oro har- katarsi kolektiborako baliagarri izan dadila besterik ez diogula eskatzen, ez *benetako* gauzei buruz jardun dezala; baina harrigarria da politika hain modu sutsu eta banderizoa bizi duen herrian gaiak telesailetan tarte handiagoa ez hartu izana. Ideia originalak ez dira falta, euskal literaturari begiratzea besterik ez dago pantaila txikira egokitze moduko istorioak aurkitzeko; eta gainera, azkenaldian atzerrian ugaritzen ari den generoa da.

*The West Wing*ek zabaldu zuen 1999an azken hamarkadetakoa telesail politiko berrien ildo eta zazpigarren denboraldiraino iritsi zen AEBetako Etxe Zuriko gorabeheretan oinarrituta. 2010eko hamarkadara etorrira, *Black Mirror* serie britainiarreko lehen kapituluak, adibidez, kontatzen du sare sozialen bidez zabaldutako mehatxu batek Erresuma Batuko lehen ministroari egin diezaiokeen, tira, "zerrikeria". *House of cards* izango da, dena den, ingelesez sorturiko telesail politikoen artean azkenaldian zeresan handiena eman duena: Kevin Spaceyk hezur haragiztatzen du Frank J. Underwood AEBetako kongresista demokrata gupidagabea David Fincherrek (*Seven*, *Fight Club*) zuzendutako telesailan.

Eta horietan jada ez dago komediarik: politikaren alde gordina erakusten duten telesailak dira, thrillerretik hurbilako sitcometik baino.

Euskal Herria Italia da ala Danimarka?

Baina mundu anglosaxoia urrun dago eta, *Brexit*arekin edo gabe, politika ulertzeko duten modua diferentea da. Ikusle euskaldunak gure zera publikoaren antza izango duen telesail politiko bat behar baldin badu, ez du gaizki egingo erreferente europarragoak deskarg... ejem, DVDan erosita.

Jarri Danimarka, adibidez: bost milioi biztanle, hondartzara joateko klima aparta eta 26 erraustegi. Ia Euskal Herrian zaudela esango zenuke. Michael Laudrupen pase milimetrikoez geroztik, herrialdeak esportatu duen gauza interesgarrien artean dago 2010etik aurrera emititu zen *Borgen* telesaila. Birgitte Nyborg hautagai moderatua du protagonista eta lehenbiziko bi denboraldietan -hirugarrena ikusi gabe uzten baduzue ere ez duzue gauza handirik galduko- lehen ministro kargua eskuratu ondoren biziko dituen intriga eta buruhausteak kontatzen ditu.

Kapitulu asko Makiaveloren zitekin hasten diren arren, Nyborg ez da botereari eusteko edozer egiteko prest dagoen horietako bat. Politikaren alderdi humanoa erakustea du telesailak bertute, kargua eta familia uztartzeko zailtasunak adibidez -protagonista gizonezkoa balitz gaia planteatuko ote zuten, beste artikulu baterako utziko dugu-.

Bada zerbait, halere, *Borgen* ikus-tean nahiko sinesgaitza gertatzen dena hemendik begiratuta: Euskal Herriko politika ez da hain "garbia". Espainiako



Estatuarekin alderatuz kultura demokratikoan traineru batzuetako aldearekin irabazten dugula sinetsita bizi gara, baina Danimarkarekin konparatuz akaso ez gara hain galant ageri. Eta azkenaldian albistegiek ustelkeria kasuak jai eta aste kontatzen dizkigutenez, gehi, Euskal Herria Italia dela zientifikoki demostratzeko asmoz lanean ari den el-karte bat ere martxan denez –jarraitu @EHitaliaDA Twitterren–, 1992 telesailari erreparatzea izango da onena.

Politikari ustelak, enpresariak, eskupekoak, hondoratzen ari den alderdien sistema... 1990eko urteen hasieran ezagun samarra egiten zaigun koadro batean murgilduta zegoen Italia. Garai hartan bizi dira telesaileko protagonistak: Di Pietro fiskalaren bulegoan lan egiten duen polizia, enpresari handi baten alaba, Lega Nord alderdi ultraes-

Inor ez da errugabea '1992' telesail italiarrean: enpresari handiak, politikariei eskupekoak eta pikutara doan alderdi sistemaren erdian bizi dira protagonistak.

» Nolakoa litzateke euskal politikari buruzko thrillerra? *Borgen* eta 1992 inspirazio iturri onak izan daitezke

kuindarrean lekua aurkitzen duen Golkoko Gerrako beterranoa edo gaztetan komunista izan ondoren publizitate munduan bukatu duen exekutibo agriboa, besteak beste.

Urtearen kronologiari segituz kontatua, pertsonaietan oinarritutako serie honetan inor ez da errugabea, ustelkeriak dena zipriztintzen du eta joko horretan sartu ala ez erabakitzea da gertzen den aukera ia bakarra. Baina, era berean, dena oso azkar aldatzen ari da eta egoera berriak esperantzak sortzen ditu. Duela bi hamarkadako Italian, zerbait berria ekarriko zuelakoan, italiar askok Silvio Berlusconi izeneko zaldia- ren alde egin zuten apustu. *Il Cavaliere*-ren genesi politikoaren kronika gisa ere ulertu daiteke lehen denboraldia: nola hasi zen dena aldatzen, funtsean deus aldatu ez zedin.

Ezaguna egiten? Ez da izango hemen antzekoa gertatzen ari dela uste duzue-lako? Gutxienez honelako ekoizpenak egiteko probestuko balitz, zerbaitek arinduko liguke politikaren pena. ■



XXVIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2016

Sari nagusia: **Sustrai Colina**

Kazetari berria saria: **Unai Oiartzun**

Epaimahaiaren sari berezia: **Amagoia Gurrutxaga**




KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hitzak azalean igurtziz



Amaia Alvarez Uribe



Mr. Señora

OIER GUILLAN

Txalaparta, 2016

Oier Guillanen azken lanean, *Mr. Señora eta beste ileorde batzuk* izenburupean zazpi antzezlan aurkituko ditugu. *Ileorde* hitzarekin Eugène Ionescoren *La cantante calva* lanari egindako erreferentziarekin absurdorako joera datorkigu burura. Joera honen bitartez kritika soziala eta jendarte egiturak agerian ipini eta deseraikitze aukera baliatu du egileak. Eta horrekin batera poesiarako sartu-irtenak ere, hitzekin jolasteko eta ni-a biluzteko aprobetxatuko baitu.

Bidelagun ugari izan ditu Guillanek antzezanok erreizitateko: Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Joseba Roldan, Urtzi Urkizu, Iñigo Ortega eta Miren Alcalá. Normaltasuna eta arau sozialak auzitan jartzeko galderak eta gogoetak egiten ditu lan hauetan kontraesanak azaleratuz, egileak ohi dituen kontzeptu eta irudi batzuk errepikatuz: mina depilatu edo elkartasun erradikala.

Mr. Señoran desarmairugabetzea aldarrikatzen du. Norberaren eta Besteen begiradaz ari da, eragiten duten minez eta gorputzak askatzeko aukeraz. “Denok gara arma-ru batetik ateratzeko gai. Zein da zurea?”, galdetzen dio irakurle edo ikus-entzuleari. *Hautudeterminazioan* euskaldunak bere burua, bere hankarte, bere mingaina, bere azala egunero hautu-determinatzen duela dio. *Ate etzanan* elkarbizitza eta gatazkez ari da. Anariren kantu bateko letra erabiltzen du abiapuntu gisa eta harremanei begira jartzen da ohe eta mahai artean.


Maite zaitut oraindik lanean maitasunaren “alde iluna”-ri begiratzen dio. Bestearen askatasuna norberarenarekin nola moldatu daitekeen planteatzen da. Maite zaituztenek

eragindako minaz mintzo da. Eta minean sakontzen du *Minari buruzko solasaldiak*-en. Min motak eta minen iraupenaz, ahanzturaz, bestetasunaz dihardu.

Bi ahots lanean *Tintinen* Dupond eta Dupont ekarri dizkigu akordura. Ispilura begiratzuz, norberarenak bestearen bidez ulertu nahian dabilta. Egiaz eta gezurraz hitz egingo dute, munduko gerrez. “Emakumeek pairatzen dutena da munduko gerrarik zaharrena, aitortu gabeko gerra, biktima gehien eragin duen gerra”, ondorioztatuz.

2010ean Artezblairekin argitaratutako *Arra*. *Arraroa* da bilduma honetako azken antzezlan. “Zerk edo zerk definitu badu orain arte gizona izatea zer den, hori beldurra izan da”, irakurri ahal diogu orriotan. Familia du hizpide, gune eta bazterrak. Itsusien aldeko aldarria egiten du Virginie Despentesek *King Kong Théorien* egin bezala. Ainara Gurrutxagak hitzaurrean dioen moduan, azaleko izotz geruza desagerrarazteko ukendu gomendagarria. ■

Oier Guillan idazle eta teatrogile erreteriarra (eskuinekoa); ‘Mr. Señora’ lanaren antzezpenean.



» TELEGRAMA

Uztailaren 14tik 17ra martxan da **Hondarribiko Blues Festibala**: Gipuzkoako kostaldeko udako klasikoa bihurtua da jaialdia. Aurten Henry Gray piano-jotzailea omenduko dute *STOP* Sra. Polarroiska taldeko kideek **Ulrike Ottinger** zinemagilea elkarrizketatuko dute Donostian uztailaren 16an. Tabakalerako Z aretoan 18:00etatik aurrera entzun ahal izango dira Alemaniako zinema berriaren ikur den artistaren gogoetak *STOP Freak zinema* gustatzen? Gasteizko Artiumek doako B serieko filmak eskainiko ditu uztailaren 15etik 17ra bitartean *STOP*

» DISKOA

Gora gazteria askatuta



Iker Barandiaran



Hamen

BELAKO

Mushroom Pillow / Belako Records

Belako talde mungiarra 2011n eratu zen.



Asko pozten naiz Mungiako laukoteak kotoiaren proba gainditu duelako. Taldea sortu eta estreinako lana kaleratu berritan, apenas urte eta erdira, bitsa balitz bezala altxa ziren publikoaren kienelatan, baita kritikaren berbetan ere. Ordutik Espainiako Estatuko jaialdi guztiek nahi dituzte karteldegian eta partaideen ikasketek baimendu ahala han eta hemen jotzen dihardute ia etenik gabe. 2013an, adin nagusitasuna eskuratu berri, kaleratu zuten *Eurie* eta sorpresa ederra izan zen: freskoa, revivalista, gaztea eta, batez ere, lotsagabea... baina funtsarekin eta esateko gauza askorekin. Zuzenekoetan ere –gehiene-tan– hala aritzen ziren: esperimentatuz, lengoaia propioa eraikiz, eta batez ere disfrutatzen eta lehertzen. Orriotan jaso nuen lana goraipatuz eta etorkizunak emango zuenaren esperantzaz, baina betiere azkar igotzen den bitsaren permanentziaz kezkatu.

Ordutik iraupen laburreko bi lan auto-ekoitzi dituzte: *Bele beltzak baino ez eta AAAA!!!!*, biak 2014an, eta beraien kabuz. Bi lan horiek ilunak dira, introspektiboak, eta 80ko hamarkadako new-waveetik urrunduta zaplaztekoa eman zieten Mungia-koa talde revivalista hutsa zela esaten zuten guztiei. Bi lanok erakutsi zuten Josu Ximun (batez ere) eta Lore Nekane Billelabeitia, Cris Li-

zarraga eta Lander Zalakainen burmuinak pil-pilean daudela.

Orain ardi-azala duen disko luze berria kaleratu dute: *Hamen*. Ardi-azal diot, abestiak amableagoak direla dirudien arren amorru eta eztanda egiteko gogo asko gordetzen (eta ateratzen) dutelako. 10 kantuk, ohi duten moduan ingelesez, euskarazko bakarra eta bertsio bat. Diskoari hasiera ematen dion *Fire alarmek* asko dauka taldearen izaeratik: baxu potentea, sinteak, 80ko hamarkadako elektroa eta psikodelia. *Guk eman ez* Alemanian jaio, noise eta grungetik edan eta elektro-rock basati eta kaotikoan hiltzen da. *Off your shoes* garagea da, zati epikoak uztartuz riot grrrl noisea ere badena, zapalgailua. Letaginak atera ostean, dantzarako tarte zabal-tzen da: *Key* elektro-etnikoa da, gero eta organikoagoa eginez hit!a bilakatuz. *Nomad* ere hit!a da, ia souletik abiatuta Pixies talde handiak gorpuztu eta tribalista bihurtzen dena. Pixies ikurra da, eta berari zor dio arima *Track seik* ere.

Mum taldearen aspaldiko dantza-arma da, baina hau bertsio lasaigoa dugu; eta *Something to adore* ur azpiko baleen dantza da, ia orkestrala. Itsasotik alden-du gabe, *Hegadun baleak* euskarazkoak hondarreko rocka dakar gogoan distortsio eta indar handiarekin. Azken txanpan, *Crimek* El Inquilino Comunistaren noise-rock dotorea ekarri dit gogora eta *Simmermanek* dauka Nina Simonen basakeri propioa eta Felix Da Housecaten kadentzia. ■



ANTHONI ARNAUD



Andrea Zubozki

GADAFISTE BROTHERS

Maiatza amaieran kontzertua eskaini ziguten Donibane Garaziko Luis ostatuan.

Uniformizatzen ari diren mendealdar pentsamenduen kontra doaz Gadafiste brothers. "Brigada internazionalistak Libian!" esaldia ez da usu entzuten ohol-tza gainean...

Eszena gainean hiru tipo eta ordenagailu bat. Ordenagailuaren bidez, bateria eta sampleak bidaltzen zizkiguten: tu-ka, tu-tu-ka erritmo geldiezin baten gainean, gitarraistak bere riff punkiak ematen zizkigun. Bere ondoan bi kantari: mikro zangoak kakiterat igorri ondoan, mikroari lotutako kableak ematen zaien luzetasun guzia maximora arte erabiliz, publikoaren gainerat jauzi egiten zuten.

Kontzertuan, *Saif al Irati* haien disko berriko kantuak entzun izan ditugu: *Gaueko Sorginak*, *Indiana Jones*, *Kevin eta Kattalin*, *Les bidasses à la Bidouze* eta *Palestinian only* beste kantu zaharrago batzuen artean oihukatuak izan dira.

Gadafistek publikoarekin duten ha-

rremana ikaragarria da. Ez dute kontzertu bat ematen, baizik eta kantuak jendeer kantatzen. Ezberdintasun alimalekoa. Gadafistek haien kantuak kontra boterea eramateko indar ikaragarri bat bezala erabiltzen dituzte. Kantariak publikoan, eta publikoa haiekin kantuz, nahiz eta pertsona gutxi izan gelan!

Baina berdin du; ez du publikoaren kantitateak kontzertuaren kalitatea egiten.

Kantuen artean, taldea mintzo zitzaien; noiztenka probokatzaila, noiztenka argi eta zuzen, baina hala ere usu ironia eta trufarekin. Trufatzen badakite, denez, haien buruaz ere.

Hiru oztibartarrek dena xehatzen dute, materiala ere! Mikrofonoetan oihuka baffleak saturatu arte, mikro kableei tiraka, edo/eta hegazkina egiten kablearekin. Behin baino gehiagotan soinu mahaia oreka lanjeros batean sakatu digute!

Biziki maitatu ditut Gadafistak, aspaldi honetan ez nien horrelako kontzerturik ikusi; ez zuten argirik, soinu txarra baina lortu dute ostatua buruz behera jartzea.



Gadafistek ematen dituzten kontzertuak zikinak dira, akatsekin baina biziak. Iruditzen zait gero eta horrelako kontzertu gutxiago ikusten direla gure lurraldean. Gaur egun, eszena gehienak "klinikoak" edo/eta "steriloak" bilakatzen ari dira. Hainbeste komedia, hainbeste soinu eta argi... eszena telebista balitz bezala. Aitzinetik prestatutako antzerki bat, biziari lekuri utzi gabe... Publikoa oro har ere joko horretan arrunt sartua da. Kontzertuak bizi orde, mugikorarekin argazkitan hartzen edo/eta filmatzen ditu, ondotik begiratzeko inoiz bizi izan ez duen momentu bat...

Artikulu hau baliatu nahi nuke mezu baten pasazteko irakurle orori: pantaila bat begiratu nahi baduzu, etxean geditu. ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Jose Mari Ustarrozek, Idiazabal Jatorrizko Izendapeneko lehendakariak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.


3	2	5				8		
1	6	4					2	
				1	6			
	4			8	9			6
	7		1		5	4		3
				3				
			8	9	2	3		7
4	3	7		6			9	8
8		2		7				

5					4		2	
	4	6			8			9
9			7	6	3	5		
						5		
		3	4		6	1		
	8							
		9	2	3	7			5
8			6			2	7	
	5		8					6

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Izoztu.
2. Ihar.
3. Ihes eginez.
4. Berezitasun.
5. Koipea.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak, falta diren hiru hizkiak denetan berak direla kontuan izanik. Hori bai, hurrenkera ez da zertan bera izan.

1				I	A	L	D	I
2	S				K	U	M	E
3	E	T				L	D	I
4	S	I	G				G	A
5	T	E	L	E				O
6	H	A	R	R	E			

Soluzioak

8	9	2	4	7	3	6	1	5
4	3	7	5	6	1	2	9	8
6	5	1	8	9	2	3	4	7
5	1	8	6	3	4	7	2	9
9	7	6	1	2	5	4	8	3
2	4	3	7	8	9	1	5	6
7	8	9	2	1	6	5	3	4
1	6	4	3	5	8	7	2	9
3	4	5	2	8	7	1	9	6
5	7	8	9	1	4	6	2	3

Puzzlea:
"Jatorrizko Izendapena Europak babestua da. Horrek ez du esan nahi dirua ematen digutenik, baizik eta beste inork ezin duela gure izena erabili".
5x5:
1. Leitu. 2. Eihar. 3. Ihesi. 4. Tasun. 5. Urina.
Hizki berak:
1. Aisialdi. 2. Sasikume. 3. Etsaldi. 4. Sigi-saga. 5. Telesailo. 6. Harresia.

Naïma Hamrouni. Sexismoaren eta arrazakeriaren bidegurutzan



Emakume arrazatua du gogoetaren subjektu Naïma Hamrouni ikerlari feminista quebecarrak. *Le sujet du féminisme est-il blanc? Femmes racisées et recherche féministe* (Feminismoaren subjektua zuria ote da? Emakume arrazatuak eta ikerketa feminista) liburua atera berri du beste hainbat ikerlarirekin batera. Interseksionalitateari eta feminismoaren deskolonizazio beharrari buruzko obra ezinbestekoa.

“Onartu beharra dago emakume zuri gisa toki pribilegiatuan garela”



Jenofa Berhokoirigoin

ARGAZKIAK: NAIMA HAMROUNIK UTZIAK

‘Black’ feminismoa oinarrian

“Pertsonalki edota hurbilekoek bizitu bizipenak hitzez adierazirik kausitu nituen Bel Hooks, Audre Lorde eta Angela Davis idazleen obrak irakurtzearekin, besteak beste. Egunerokoa bizitutakoaren zentzua eta zehaztasunak kausitu nituen idatzi horietan. Orduan nuen zapalkuntza sistemen inbrikazioaz kontzientzia hartu”.

“Emakume arrazatua” terminoa erabiltzearen beharra azaldu duzue liburuan. Arrazaren eraikuntza soziala azpimarratzeko erabiltzen dugu termino hori, batzuen nagusitasuna eta besteen zapalkuntza dakartzan ezberdintze sistema hori isilean ez uzteko. Biologikoki jende arrazarik ez dela errateko adostasun zientifikoa izan arren, kategorizazio sozial hori hor dago eta arrazatuek pairatu behar izaten dute.

Jakintza oraindik deskolonizatu beharra dela diozu.

Feminismoa ez ezik, orokorki gizarte zientziak dira deskolonizatu behar. Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako ekoizpen zientifikoa luzaz ez dira kontuan hartu. Gaur egun oraindik gutxien edo gaitzerraten dira, exotikotzat estereotipatuz. Emakume arrazatuei buruzko ikerketa nagusiek usu huts egin izan dute subjektu horien ahotsa kontuan hartzeko saiakeretan. Horrez gain, bizitu esperientziez emakume arrazatuek duten irudikapen propioei

ez diete kasurik egin. Hori horrela, estereotipoen mantentzean parte hartzen dute: zapalkuntza patriarkal ala erlijiozkoaren biktimatzat itxuratzen dira, edota kategoria pasibo eta agentibitate gabekotzat.

“Feminismoaren subjektua zuria ote da?” galderari zer erantzuten diozu zuk?

Emakume zurien bizipenak izan dira luzaz mugimendu feministaren eta teoria feminista dominanteen subjektuak. Adibidez, 60 eta 70eko hamarkadetan, kontrazepzio eta abortu eskubidea mugimendu feminista *mainstream*-aren aldarrikapen nagusi zen bitartean, esterilizazio bortxatuaz ziren gehienbat kezkatuak emakume beltzak eta autoktonoak; norbere gorputzaren kontrolaren aldarria ezberdin kontsideratzen zuten. Gaur egun, feminismoa gero eta gutxiago da zuria: jakintza, esperientzia, bizipen eta borroka minoritarioei bideratu beharreko tokiaz gehiago gogoetatzen da eta emakume arrazatuen lanak gehiago irakatsiak dira. Adibidez, kurtso osoak dira



“Gaur egun, feminismoa gero eta gutxiago da zuria: jakintza, esperientzia, bizipen eta borroka minoritarioei bideratu beharreko tokiaz gehiago gogoetetzen da eta emakume arrazatuen lanak gehiago irakatsiak dira”.

feminismo post-kolonialei, autoktonoei, musulmanei ala beltzei zuzendurik. Baina paradoxikoki, ikasketa feministaren barruan aparteko toki bat zuzentzeak feminismo zuri *mainstream*-aren eta jakintza feminista arrazatuen arteko bereizketaren atxikitzea ere sustatzen du.

Feminismo deskolonizatu baten giltzak zein dira?

Argi ukan beharra dago emakume guztiak ez direla egoera berean eta zapalkuntza ezberdinak bizitzen ditugula. Onartu beharra dago ere emakume zuri gisa toki pribilegiatuan garela. Hori onarturik, gaiaz zuzenki hunkiriko emakumei hitza utzi behar zaie, Bel Hooksek zioen modura “mugimendu feministaren jabe” baikinak jokatzea ekidinez. Elkartasuna gauzatzeko moduak berriz pentsatzean datza kolonialismoa eta infantilizazioaren luzatzea saihesteko baldintza: emakume arrazatuen aldarrikapenen transmisio uhal gisa jokatuz dute emakume zuriek zinezko sostengu aktiboa erakutsiko.

Interseksionalismorik gabe ez dago “gu emakume” subjektu arras inklusiborik.

Hainbat zapalkuntza sistemaren inbrikazioa bizi dute emakume batzuek. Sexismoaz gain, heterosexismoa noski, baita arrazakeria ere, emakume arrazatuek adibidez. Kontua ez da erratea emakume horien bizipena okerragoa ala larriagoa dela, baina bai kualitatiboki ezberdina dela, eta argi ukaitea injustizia horiei emango zaizkien erantzunak ezberdinak izango direla.

“Deshumanizazio sexualizatua” kontzeptua erabiltzen duzu.

Filosofia politikoan, herritarrek bizi-tu injustizia eta berdintasun eza dituzte behatzen justizia banatzailearen eta onarpenaren teoriak. Emakume arrazatuek jasan injustiziak ezin dira mugatu enplegura iristeari, errentari, botereei ala funtzioei –justizia banatzailea– edota ezberdintasun kulturalaren ezagupen baikorrari –ezagupenaren teoria–. Deshumanizazioa bizi dute: gizakia baino gutxiagotzat hartuak eta tratatuak

dira. Gutxienez bi arlotan sentitzen dute hori: psikologikoan, haien agentibitatea ukatua zaie eta hautu autonomoak egiteko gaitasuna berriz ezeztatua zaie. Hala nola, *hijaba* duen emakumea derri gorrez alienatua dela entzun ohi dugu. Bigarrenik, arlo fisikoan arraza kategoriari uztarturiko bortizkeria sexuala bizi dute. Adibidez, buruzapi musulmana errotik kentzen zaienean edota jatorriari loturiko irainak pairatzen dituztenean.


“Gu emakume” inklusibo bakarra ala ha maika “gu emakume” txiki?

Beharrezkoak izateaz gain, emankorrak dira aniztasuna eta ezberdintasuna. Nire ustez, talde feminista ezberdinak mantentzean eta noizbehinkako aliantzak egitean datza benetako askapen borrokarako giltza. Perspektiba nagusien partetik gauzatu bazterreko indarren erreperazioa eta gutxiengoan direnen ezabaketa saihesteko balio du ere feminismoaren baitako ezberdintasunen balorazioak. ■



Frantzia Eurokopako txapeldun Manuel Vallsen dekretu bati esker

Eurokopako finala amaituta markagai-luan Portugal 1-0 gailendu zen arren, Frantziak irabazi du azkenik txapelketa. Partidua bukatu ostean Manuel Valls lehen ministroa epailearen aldagelara joan zen eta solasaldi lasai baten ondoren, azken emaitza aldatzea adostu zuten biek. “49-3 irabazi dugu”, adierazi zuen harro Vallsek aldagelatik ateratzean. Bere alboan, buruarekin baietz-baietz esan zuen arbitroak. Kazetariak jakin nahi izan zuten zergatik zeukan begi bat ubelduta eta ahoa zapi batekin lotuta; baina galdetzen hasi orduko CRS koadrila bat agertu zen eta, ohikoa duten sinpatiarekin, azalpen zehatzak eman zizkieten –bizkarrean nagusiki, baina baita buruan ere– korrika ihes egin ez zuten guztiei.



Ustezko notiziya... edo ez

Diotenez, baliteke epailea ei den batek bost lagun espetxeratzeko agindua eman izana, egunotan sanferminak ospatzen ari omen diren Iruñean emakume bat ustez bortxatzea egotzita. Bortxaketa erakusten duen ustezko grabazioa, apika telefono mugikor bat erabilita ustezko erasotzaileek eurek beharbada egindakoa, akaso egiazkoa da eta akaso ez. Antza denez, hala zabaldu bide zuten menturaz publikoa den hedabide bateko ustezko zenbait kazetarik jaien bigarren egunean, guxti gorabehera.

Gerta liteke espetxeratutako bost gizonetako bat ausaz guardia zibila izatea, baina datu hori oso zalantzezkoa

dateke; “horiek beti binaka ibiltzen dira-eta, non dago bestea?”, esplikatu du alegiazko lekuko batek.

Beranduegi ustezko biktimarekin harremanean jartzen saiatu da, baina gaia ondo ezagutzen duten iturriek argitu digutenez, ez da segurua pertsona hori existitzen denik ere.

Informatzen jarraituko dugu.



SAREAN ARRANTZATUA

Follow the leader



Mamu harrapari modernoa



Azteazqueneraco itzordua



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
EKONOMIA SOZIALA
ELIKADURA BURUJABETZA

INGURUMENA

INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Bestelako mundu bat amesten dugu ARGIAren, ekonomia klasikoaren kontzeptuak edozeren gainetik kokatuz ingurumena arriskuan ipintzen ez duen jendartea. Horregatik, berebiziko arreta eskaintzen diegu mundu jasangarri baten alde Euskal Herrian eta munduan egiten diren ekimenei, eta ez hori bakarrik: gu ere ahalegintzen gara, geure egunerokoan, balore horiek txertatu eta sustatzen.

UZTAILEKO ZOZKETAK



Cristina Enea fundazioaren Hazien ugalketari buruzko eskuliburua (5 liburu)

www.cristinaenea.org/haziera



Ekologistak Martxan-en materiala (5 saski)

www.ekologistakmartxan.org



ENEEK-en materiala eta Ekolurra harpidetza (5 saski)

www.eneek.org

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Ez beldurrik izan
datorrenari...
eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia
eta irailean
eskuratuko duzu.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

50€

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari



☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus